


## ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia  
estreinatuko  
dugu igandean:  
goizeko ordu  
bietan, hirurak  
izango dira.



## Sakanako Plan Estrategikoa egunean jarrita

Lehentasunezko beharrak eta proiektuak zehaztuta / 2

**Haur eta gaztetxoek  
udalekuak prestatzen  
eta pagatzen  
lagunduko du  
Euskara Zerbitzuak** / 5

**Lan istripuan  
zauritutako  
lakuntzarra hil egin  
zen eta hunkituta  
agurtu zuten** / 9



**Altsasuko alkateak  
hirigintza plan berria  
egin nahi du garatu  
gabeko sektoreena  
konpontzeko** / 7

**Arbizuko duatloia  
22. edizioa bihar.  
10:00etan Nafar Kirol  
Jolasak eta 15:30ean  
helduen proba** / 13

**Juan Luis Larrazak  
Nafarroako ikastolen  
historia hasierako  
liburu batean  
jaso du** / 8



**Urdiaingo euskarako  
aditza erabiltzen den  
"Errementari" filma  
Altsasun izanen da** / 21

**Elkartasun zumba  
maratoia, zumbatoia,  
larunbatean,  
11:00etan, Arbizuko  
kiroldegian** / 15



## Negozio erreleboa

Errentagarriak diren negozioak eskuz aldatzeko jardunaldia / 3





Ibarreko makina bat eragileren ordezkariak eta haiek gonbidatutakoak elkartu ziren asteartean, 32. SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

## Plan Estrategikoari urteroko errepassoa

Sakanako Plan Estrategikoa 2014-2020 dokumentuan ibarraren garapen ildoak zehaztu ziren. Baina dagoen errealitateari egokitu behar da. Hortaz arduratzen da Sakanako Sozioekonomia Behatokia, 2018ko proiektuak eta beharrak identifikatu ditu

### SAKANA

Udal eta mankomunitateetako ordezkariak, alderdiek, sindikatuak, enpresek, gizarte zerbitzuek, ikastetxeek, Nafar Lan sarek eta beste hainbat eragilek osatzen dute Sakanako Sozioekonomia Behatokia. Hausnarketarako eta ebaluaziorako erakundea da. Haren egitekoa da Sakanako Plan Estrategikoa nola garatzen ari den ikustea eta, behar izanez gero, egokitzapenak proposatzea. Aldi berean, Sakanako Garapen Agentziaren urteroko ekintzak eta lan ildoak zein izanen diren proposatuko dute.

Behatokiko kideak asteartean elkartu ziren Lakuntzan. Saka-

nako Garapen Agentziaren proposamenari segituz, eragile bakoitzeko ordezkari bakoitzak beste sakandar batekin joan zen bilerara. Agentziako Aintzane Iriberrik azaldu digunez, "udal-letara eta erakundeetara iristen gara, baina jendartera iristea zailagoa zaigu. Sakanako Plan Estrategikoaren Eragina jasotzen duen populazioak plana bizi duen jakin nahi genuen".

### Lekukotzak

Josefina Arregi klinikakoekin belaunetik operatutako eta ondo ezin ibili gelditu zen emakume bat joan zen. Klinikako funtzio-errehabilitazio unitatean bi hilabete eman eta gero berriro

oinez dabilela azaldu zuen. Sakanako Enpresarien Elkartearekin lantegi bateko arduraduna joan zen eta gaur egun trebatutako lan eskua kontratatuko dituzten arazoak azaldu zituen.

Bestetik, Uharteko Arakilgo zinegotzi batek, enpresa handi batean lan egiten duenak, lantegietan nahikoa ez den argindar hornidurekin arazoak dituztela azaldu zuen, ekoizpen prozesuei eragiten diena, batez ere fundizioetan. Bestetik, Urdiaingo Udalak Bernoako galtzada berreskuratu ondoren Errotainek hura zaldi-ibilbideetarako erabiltzen dutela eta, bide batez, galtzadaren historia azaldu zuen.

Halako lekukotza gehiago izan ziren. Iriberrik azaldu digunez, Sakanako Plan Estrategikoaren ekimenekin izandako onurak eta beharrak azaleratu nahi izan zituzten horrela. Proiektu eta behar mordo bat azaleratu ziren.

### Lehentasunezko proiektuak

Zerrenda lehen postuan bertako produktuen eraldaketa zentroa sortzea gelditu zen. "Abeltzain eta nekazariek euren produktuak banaka eraldatu ezin dutenez taldeka egitea izan daiteke aukera eta, horrela, esnekiak, marmeladak, haragia edo dena delakoa merkaturatu daiteke". Sakanako Garapen Agentzia gaia lantzen ari dela eta dirulaguntza deialdiren bat baliatu daiteke. Etxarri Aranazko Udalarekin ere harremanetan dira, antza, lokal egokia du.

Sakanako Plan Estrategikoaren bidez zahartze aktiboa ere landu nahi dute eta gorago aipatu dugun Josefina Arregi klinikako funtzio-errehabilitazio unitatea potentziatzeko aukera bigarren gelditu zen.

Hirugarrena, ezpalen bidezko energia hornitzearen sustapena da. Arbizuko kiroldegian ezpalak erregai duten galdara bat jarri dute. Udalak ezpalak erosten ditu. Iriberrik azaldu digunez, "Iturmendiko Udalak bero sare bat sortu nahi du etorkizunean eta harekin hainbat eraikin berotu. Ezpalak erreko lukeen galdara bat edo bi lituzke. Ezpalak baso kudeaketatik lortu nahi dituzte. Eta hori da guretako interesgarriena, bertako baliabideak erabiltzea, biomasa kasu honetan".

Iriberrik gogora ekarri du Lur Geroa enpresak Sakanako herrien biomasa gaitasuna aztertu zuela. "Hori eraldatuta guk erabili dezakegu. Egurra ezpaltzea udal batendako errentagarria ez bada, agian, hainbat herrietan ezpalgaldarak jarrita ezpaltzea elkarrekin egin daiteke".

Astearteko bileran Sakana Lanbide Heziketa institutuko ikasketa zerbitzuak ibarreko herri eskolekin sortutako kola-

borazioa aitortu zen. Proiektuen artean ere azaldu ziren, besteak beste: herrietan taberna-dendak jartzea, natur bideen sarea, Lizarragako argindarra sortzeko mikro sarea eta beste.

### Lehentasunezko beharrak

Aurreneko postuan jarri zuten kualifikatutako langileak lortzeko enpresa askok duten arazoa. "Ikasketa duala indarrean jarri da eta emaitzak emanen ditu, baina enpresek orain dute langile premia". Enpresek inotutakoa da identifikatu zuten bigarren lehentasuna: argindar sareko potentzia muga handitzea industrian dituen eragin negatiboak desagertzeko. Iberdrolak Sakanako sarean potentzia handitzeko asmoa du, baina gertatu bitartean eguneroko premia da ibarreko lantegi askotan.

Mugikortasunari lotuta, egokitutako garraioaren premia azaldu zen. Atzemandako hirugarren beharra prestakuntzarekin lotutako beste premia bat da: dependentzia edota mugikortasun arazoak dituzten pertsonen zainketarako trebatutako langileak izatea. Horren premia Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek gaztigatu zuten.

Iriberrik azaldu digunez gai horri heltzeko Sakanako Industriarendako Prestakuntza Plan Estrategikoa lantzen hasi dira Cederna-Garalur, Sakanako Enpresarien Elkartea, Lanbide Heziketa institutua eta Sakanako Garapen Agentzia. "Joan den urtean Sakanako Enpresarien Elkartea behar estrategikoak landu zituen eta orain, pixkanaka, aurrera aterako ditugu. Helburua kualifikatu langile sakandarrak lortzea da". Beste beharretako bat industrialdeetan wifia zabaltzea da.

## LEHTASUNEZKO PROIEKTUAK ETA BEHARRAK ZEIN DIREN IDENTIFIKATU ZITUZTEN

<b>EGOKI</b> VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com	Isolamendu nukleo indartsua	Etxe pasiboetarako egokia 5 9000	Beirak lehorrean jarrita
			Aparteko azala koloreztatua	
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea				



## Etxarriko Udalaren langabeak kontratatzeke deia

Etxarri Aranazko Udalak Nafarroako Gobernuako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntza baliatuz herriko langabeak kontratatuko ditu. Hiruzpalau langabetu hartuko ditu udalak, urte erdi edo urte osorako kontratuarekin. Hiru kolektiboetako kideak dira kontratatuko izan daitezkeenak. Batetik, errenta bermatua jasotzen duten pertsonekin, edo gutxienez ere %33ko desgaitasuna frogatzen dutenekin, edo genero indarkeriaren biktima diren emakumeekin. Bestetik, emakumezkoak eta, azkenik, 45 urtetik gorako gizonekin edo iraupen luzeko langabeak diren 30 urtetik gorakoekin.

Probaldian parte hartzeko Altsasuko enplegu bulegoan eman behar da izena apirilaren 3ko 14:00ak baino lehen. Ondoren probak etorriko dira: euskara-rena apirilaren 9an, 09:30ean, Etxarri Aranazko liburategian; teorikoa, apirilaren 10ean, ordu eta toki berean. Teorikoarekin batera praktikoa egingen da.

## Olatzagutiko Udalak kisugilea kontratatuko du

Olatzagutiko Udalak zerbitzu anitzetako lantaldea aritzeko lehen mailako kisugile bat aldi baterako kontratatzeke deialdia egin du. Hautatua den pertsonari udalak sei hilabeteko kontratua egingen dio, hamarrera arte luzatu daitekeena.

Lanpostuan interesa duten langabeek apirilaren 4ra arte aurkeztu ditzakete euren eskaerak Altsasuko enplegu bulegoan. Hala ere, zerbait baldintza bete beharko dituzte: B1 gida baime-izatea, Eskola Graduatua edo parekoa izatea, kisugil lanean bost urteko eskarmentua izatea edota Nafar Lansaren lan eskaizate gisa izena emanda izatea.

Hautapen prozesua apirilaren 10ean hasiko da, saio teorikoarekin. Hurrengoan praktikoaren txanda izanen da. Eta, azkenik, apirilaren 12an euskara probaren txanda izanen da. Prozesua gaitzen dutenekin lan poltsa osatuko du udalak, puntuazio ordenari zorrotz segituz eta 5 urtez indarrean izanen da.



Altsasuko lortia kultur guneako areto nagusian izanen da jardunaldia. ARTXIBOA

# Negozio erreleboa, ekintzaitzarako aukera

Martxan den eta etekinak ematen dituen negozioak eskuz aldatzeari buruzko jardunaldia antolatuko du Nafarroako Gobernuak. Altsasuko lortia kultur gunean izanen da, heldu den asteartean, 12:00etatik 14:00etara

SAKANA

Errentagarriak diren hainbat negozio itxi beharrean izaten dira jabeak jubilatzean edo ezin dutenean behar bezala eraman. Hori eragotzi eta herrietako ekonomia bizirik mantentzeko, Nafarroako Gobernuak negozio txikiak eskuz aldatu nahi dituzten jabeak eta interesa duten pertsonak harremanetan jarri nahi ditu. I. Nafarroako Lan Autonomoaren Planaren bidez hasi da hori egiten.

Eta horixe azaltzera etorriko dira Altsasura Maite Vacta eta Susana Mateache, Nafarroako Gobernuako Lan Zerbitzukoak. Aurrenak aipatu planean jasoak dauden jardura nagusiak aur-

keztuko ditu. Bigarrenak, berriz, baita ekintzaitzarako dauden laguntzen eta Negozioetarako Errelebo Poltsaren berri emanen du. Azken hori pasa den ostira-lean aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak. Poltsa edo tresna berri horren zeregina hau da: martxan dauden negozioak saldu edo erosi nahi duten pertsonak harremanetan jartzen ditu, negozio horiei jabetza-aldaketa egiteko.

**Sakanara**

Aurkezpen horren aurretik, Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezek herrian ekintzaitzaren sustatzeko ordenantza aurkeztuko du. Cederna-Garalurre-

ko Susana Mendinuetak, bestalde, ekintzaitzaren babesteko zerbitzuaren berri emanen du. Ondoren, Sakanako Enpresarien Elkarteak Cristina Irisarrik ibarreko industria arloan erreleboa bilatzen ari diren negozioen berri emanen du. Sakanako Garapen Agentziako Odei Arregi, berriz, haiek atzemandako erreleborik gabeko kasuen berri emanen du.

Jardunaldia errentagarria zen negozio bat hartu eta harrekin aurrera egin duten hiru altsasuarren lekukotzarekin osatuko da: Koldo Lezea (Deportes Lezea), Cristina Gonzalez eta Maria Luisa Zufiaurre (ML Moda) eta Mirian Roldan (Liburunda pa-

pergintza eta liburu-denda). Ondoren, parte-hartzaile guztiak bilduko dituen auzate bat izanen da. Mokadu artean iritziak eta esperientziak trukatzeko aukera izanen dute guztiak.

## Astearteko jardunaldiko egitaraua

Izena emateko [www.cederna.eu](http://www.cederna.eu) web orrira sartu behar da.

- **12:00-12:20** Altsasuko ekintzaitzaren sustatzeko udal ordenantza. Javier Ollo.
- **12:20-12:30** Nafarroako Lan Autonomoaren Plana. Maite Vacta.
- **12:30-12:40** Negozioetarako Errelebo Poltsa eta ekintzaitzaren berri emanen du. Susana Mateache.
- **12:40-12:50** Industrian erreleboa bilatzen duten negozioak. Cristina Irisarri.
- **12:50-13:00** Sakanan erreleborik gabeko atzemandako kasuak. Odei Arregi.
- **13:00-13:10** Ekintzaitzaren laguntzeko zerbitzua, Susana Mendinuetak.
- **13:10-13:30** Negozio erreleboen hiru esperientziaren berri emanen da.
- **13:30-14:00** Catering Networking.

## Dendari elkarteek euren zuzendaritzak berri dituzte

Sakanako eta Altsasuko elkarteek buru berriak dituzte eta hainbat asmo garatu nahi dituzte

SAKANA

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak eta Sakanako Dendarien Elkarteak euren presidente aldatzeko izan dituzte. Aurrenekoak 54 bazkide ditu eta euren buru Miren Ainhua

Alvarez Diaz de Arkaia (Altsasu, Sakana optika) da. Bigarren elkarteak 38 kide ditu eta buru berria Rebeka Alen Royo (Altsasu, Gertu Sakana).

Aurki bigarren bilera bat egingen dute plangintza zehazteko.

Asmoen artean dago web orria egitearena. Edo Sakanako merkataritza eta ostalaritza eskaintzaren azterketa egitea. Azken horretarako Sakanako Garapen Agentziak diru-laguntza eskatuko luke. Ikerketa horren asmoa litzateke jakitea ibarrean zer dagoen, zer ez eta zer dagoen sobera. Ez dauden sektoreak Sakanan ezartzen laguntzeko edo orain daudenak etorkizuneko segida izateko neurriak hartzeko, besteak beste.

+[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



ADEren sari banaketa. ARTXIBOA



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

## Izena eta izana

Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuari irudia emango dion logotipo lehiaketa aurkeztu berri du Sakanako Mankomunitateak. Anitz-artean izenburua irakurtzearekin batera memoria borboka jarri da eta gure bailaran egun dagoen aniztasunarekin zerikusi gutxi zuen garaira bidaiatu dut. Duela hogeita hamar urte inguru gure herrira bizitzera etorri ziren lehen neska-mutil beltzak etorri zaizkit gogora. Garai beretsua izanen zen euskaraz zekiten lehen ijitoak etorri zirenean ere. Izengutxiak jartzeko trebeak garen herri honetan, izengoitien ordeko izan zitekeen formula moduko bat erabiltzen genuen ezberdin ziren horiek izendatzeko. Horrela, "euskaldun" etiketa jartzen hasi ginen aniztasunaren isla ziren horiek gure egiteko: beltz euskaldunak, ijito euskaldunak... Gaur egun barregarria suerta baitaiteke ere, orduan ere aho bete hortz gelditzen ginen Euskal Telebistan beltzak, arabiarrek eta indioak euskaraz hitz egiten aditzen genituenean. Jada ez dugu "euskaldun" eransgarria jartzeko premiarik, soil soilik, Asmae, Adam, Mitiku, Redwán, Ashraf, Mariam, Catalina, Mario, Marcos... dira.

## GURE HERRIRA BIZITZERA ETORRI ZIREN LEHEN NESKA-MUTIL BELTZAK ETORRI ZAIZKIT GOGORA

Gauzak asko aldatu dira ordudunik eta horren seinale da lehiaketa hori bultzatu duen Mankomunitateko zerbitzuak berak izan dituen izen aldaketak. Immigrazio Zerbitzutik hasi, Migrazio eta Aniztasunera salto egin eta egungo Kulturartekotasun izenarekin bukatu arte. Esaten da, norberaren izenak gure izaeran eragiten duela eta gure izana eraikitzeke elementu bat gehiago dela. Antza, izen aldaketa berri honekin ere izate bat azpimarratu nahi dute: aniztasuna, berdintasuna, diskriminazio eza eta errespetua islatuko duena.

Izan bitez ongi etorriak aldaketa aberasgarri horiek guztiak. Eta bide batez, Sakanan bizi garen guztiontzat bideratutako zerbitzuari "Etorkin" izena alboraz dezagun gure burutik eta eman diezaigun Kulturartekotasun izena eta izana. Izena duen guztia irudikatzeke lehiaketan hori izan dadila sormen eta parte hartze bikainekoa.

**GUTUNAK:** Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

# Giza eskubideak urratzen diren neurrian, haien unibertsaltasuna kolokan jartzen da

### ANITZARTEAN ZERBITZUA

Orain baino bermatuagoak izan ditugu giza eskubideak munduko gizakiok. "Bi hamarkadatik hona arreta gehiago jarri izan bagenie, milioika bizitza salbatu izan ziren" dio ONUko idazkari gorenak, Antonio Guterresek, Ginebran ospatu berri den Giza Eskubideen 37. Kontseiluan.

Gero eta gehiagora doan xenofobia, arrazakeria eta intolerantziaren lekuko izaten ari da mundua, errefuxiatu eta migratuak biktima dituen eskuin birtureko ideologiak birsortzen ari diren bitartean. Opresioa modan jarri da berriro, eta askatasunen printzipio oinarrikoenak atzeraka doaz. Halako

posturak defendatzearen lotsa ere galdu da.

Munduko txoko guztietan gizarte zibila gatazka askoren helburu da, egoera inhumano eta giza gatazka atxilotua da, eta desplazatzea behartua. Gatazketan inplikaturik dauden alderdiek giza eskubideen nazioarteko araudie ez dietelako jaramonik egiten gertatzen da hau.

Gero eta gehiago bihurtzen dira gatazka epe luzekoak, kasu batzuetan hamarkadetako luzarokoak izatera iritsiz, sarraski itzelak utziz. Urtero ospatzen den Giza Eskubideen Kontseiluan parte hartzen duten lurraldeek hartzen dituzten konpromisoak eta gero burutzen dituzten ekintzen

arteko distantzia, gero eta sakonagoa da.

Hainbat lurraldek, Giza Eskubideei, 2.mailako balioa ematen diete, eta hori oso larria da. Aktibismoak tartea gero eta txikiagoa izatea larria den bezala. Eta zer esanik ez, elkartasunaren kriminalizazioaren zabalkundeaz. Hori gutxi balitz, esklabotzak indarrean dirau gaur egun Libia eta beste hainbat lurraldeetan. Gainera! Oinarriko Giza Eskubideen bortxaketa bortitza errealitate bat da tamalez, munduko bazter guztietan.

Non du Europak eta munduak helmuga? Norentzat ditu ba gordeak Giza Eskubideak?

Ez guztiontzat, alegia.

## OBJEKTIBOTIK

### Gernikako arbola da bedeinkatua, euskaldunen...

Haritz horrek 25 urte eta 39 egun daramatza Altsasun, 1993ko otsailaren 14tik hain zuzen. Urte hartan aldatu zuten udaletxe parean 20 urte zituen Gernikako arbolaren kimua, foraltasunaren ikurra. Landaketan Jose Manuel Goikoetxea alkateak, Gerardo Del Olmo baso zinegotziak eta altsasuarrek lagundu zuten.



# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gixane Andueza Goikoetxea  
admin@guaixe.eus

**Kolaboratzaileak:**  
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza  
**Zuzentzailea:**  
Miren Alonso Razkin

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
**Maketatzailea:**  
lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

### Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675  
661 523 245  
F: 948 562 107



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**





Astebeteko egonaldia antolatu du UEMAK Zestoako Sastarrainen. ARTXIBOA

## Udalerri euskaldunetako gazteendako udalekua

15 eta 18 urteko gazteendako eskaintza garilaren 10etik 17ra izanen da, Zestoako Sastarrain aterpean

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) herrietako gazteek, hau da, Arbizuko eta Etxarri Aranazkoek, parte hartu dezakete Salto! udalekuan. Astebeteko egonaldia da antolatu dena, UEMAKo herrietako 50 gazte bilduko dituen. Euskarak eta gozamenak elkartuko ditu gazteak. Aisialdiarekin eta euskal kulturarekin lotutako egitarau erakargarria prestatu du UEMAK, "gazteak gaiaren inguruan sentibilizatuta, ahalduz kolektiborako urratsa" emateko.

Salto! udalekuan izena eman nahi dutenek maiatzaren 9ra arte dute aukera. Horretarako, hezkuntza@uema.eus e-postara idatzi edo 943 816 699 telefonora hots egin daiteke (astegunetan, 08:00etatik 15:00etara). Izen-abizenak, helbide osoa, jaioteguna eta harremanetarako telefonoa

eman behar dira. Izen emateko 249 euro balio ditu.

### Aurrekaria

UEMAko herriak erdalduntzen ari direla ohartuta, herritarren kontzientziazioa eta sentibilizazioa da UEMAKo ildo nagusietako bat azken urteotan. Horren baitan, hezkuntza proiektua sortu zuen UEMAK duela bi urte, eta azken ikasturteetan herrietako ikastetxe guztietan aritu dira lanean UEMAKo teknikariak. Ikasleen artean hezkuntza ekologiararen diskurtsoa zabaltzea eta arnaguneen garrantzia nabarmentzea da proiektuaren helburua, gazteei euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia ikusarazteaz aparte. Hezkuntza arautuaren mugak gainditu nahian, lastailan Salto! Gazte Topaketa antolatu zuen UEMAK estreinakoz. Asteburutik atera da orain.

# Euskarazko udalekura Mank-en laguntzarekin

Guraso asko seme-alabak udalekura bidaltzeko asmoa dute eta aukeraketan laguntzeko Euskara Zerbitzuak gida osatu du. Gainera, Sakanako Mankomunitateak euskara hutsezko udalekuetarako diru-laguntzak emanen ditu

SAKANA

Etxetik kanpo, seniderik gabe, eta lagunekin egun gehien pasatzen duten lehen aldian izaten dira udalekuak haur askorendako. Udarako haur eta gazte-erakundeak aisialdi eskaintza zabala dago eta gurasoak horren berri era erosoan jasotzeko Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak gida bat osatu du, heldu den astean banatuko duena. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleendako euskarazko udalekuen eskaintza jasotzen du, bakoitzaren tokia, adina, data, prezioa eta matrikula egiteko modua azaltzen da. Eskaintza horren barruan AEKren familia barnetegiak ere sartzen dira, euskalduntzen ari diren gurasoendako propio sortutako eskaintza.

### Diru-laguntza

Euskara Zerbitzuak, aurreko urtean, euskara hutsezko udalekuetara joan diren haurrei eta gazteei zuzendutako diru-laguntza emanen du. Diru-laguntza jasotzeko hainbat baldintza bete behar dira, esaterako, udalekuek 5 eta 15 egun arteko iraupena izan behar dute eta garagarriaren 15etik irailaren 30era bitartean egin behar dira. Bestelako txan-



Euskarazko udalekuetara joateko gida eskuragarri dago. ARTXIBOA

go, bidaia, kirol campus edo udaleku irekiak ez dira deialdi horretan sartuko.

Euskara Zerbitzuak laguntza eskatzaileen artean 7.500 euro banatzeko aukera izanen du. Zehaztu du gehieneko laguntza 125 eurokoa izanen dela.

Euskaraz udalekuetara seme-alabak bidaltzen dituzten gurasoek gero diru-laguntza eskatu nahi badute honako dokumentazioa izan behar dute: eska-bide ofiziala beteta izatea, beste erakunderen batek arrazoi berdinagatik jasotako diru-lagun-

tzaren aitortza, udalekura joandako guraso edo tutorearen nortasun agiriaren fotokopia, udalekuan egon denaren erroldatze agiria, udalekuen ezagarraren dokumentua antolatzaileak izenpetua, udalekuko asistentzia agiria eta haren gastua pagatu izanaren ordainagiria. Dokumentazioa Mank-en Lakuntzan duen egoitzan aurkeztu behar da. Horretarako epea irailaren 28ra arte izanen da. Informazioa, berriz, 948 464 840 telefonoan edo euskara1@sakana-mank.eus e-postan.

## Esataria: Alfredo Gaurko gaiak:

- Juan Luis Larrazarekin ikastolen mugimenduaz atera duen liburuaz
- Javier Ollorekin Nafarroako Kontu Ganberaren Altsasuri buruzko txostenaz
- Ikasleen galdeketaz, ikasle grebaz eta Ikasle Egunaz

Ostiralero 9:30ean  
**SAIOA**

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



107.3 FM  
**belexe**  
guaixe.eus-en ON LINE



Haurrak jolasean. IRURTZUN ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

## Frontoia jolasena eta jostailuena izan zen

Larunbatean jostailu truke-azoka eta jolas kooperatiboekin aritzeko aukera izan zuten haurrek

### UHARTE ARAKIL

Eguraldiak laguntzen ez zuenez, Larrebieta frontoiak eman zion aterpe larunbat eguerdian Uharteko Arakilen antolatutako jostailu trukaketari. Herriko eta inguruetak haurrek bat egin zuten deialdiarekin. 50 bat izan ziren gerturatu zirenak eta haie-tatik 45 izan ziren jostailuen trukaketan parte hartu zutenak. Aurreko astean zehar eskolara eramandako jostailu bakoitzaren truke txartel bat jaso zuten eta hura beste jostailu bategatik trukatzeko aukera izan zuten larunbatean.

Baina horrekin batera kooperazio jolasetan aritzeko, orri markatzaileak egiteko edo henna tailerrean parte hartzeko aukera izan zuten haurrek. Eguerdi parte ederraz gozatu zuten. Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Uharteko Arakilgo eskolako guraso elkar-teak, Irañetako eta Uharteko Arakilgo gurasoek eta Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak antolatu zuten larunbateko saioa. Aho zapora ona utzi zien eta heldu den urtean errepikatzeko asmoa azaldu dute.



## Aralarko loteak eskatzeko garaia

Araitz eta Sakanako 19 herrik osatzen dute Aralar Elkarte. Urtero moduan etxeetarako egur loteak eskatzeko aukera ematen du. Apirilaren 30era arte eskatu daitezke. Basozainaren telefonoa 669 220 637 da. Egur lotea Arbizu, Arruazu, Dorrao, Etxarri Aranatz, Hiriberri, Ihabar, Irañeta, Lakuntza, Lizarraga, Lizarragabengoa eta Unanu herritarrek eska dezakete.



DYAko ambulanzia Irurtzunen. ARTXIBOA

## Lehen sorospen ikastaroak antolatu dituzte

Irurtzunen edo Hiriberrin egin daitezke ikastaroak. Izen ematea apirilaren 9ra arte eman daiteke

### ARAKIL / IRURTZUN

Arakilgo Udalak eta Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak elkarrekin antolatu dituzte lehen sorospenei buruzko ikastaroak. Haietan lehen arretako printzipioak azalduko dira eta kasu jakinetan nola jokatu azalduko da, esaterako: bihotz-biriketako bizkortzea, eztarriko trabamendua, oinarrizko konstanteak nola hartu eta alarma zantzuak, sendaketa, zauriak, bendaz lotzea eta erredurak.

**Irurtzunen** ikastaroa bi saioetan egingen da: apirilaren 17an eta 19an, asteartean eta ostegunean, 15:00etatik 17:00etara Atakondoa eskola publikoan. ABC que salva vidas erakundeak ematen du. Saio horietara joan nahi dutenek 948 600 694 telefonoan edo ssbirurtzun.izabala@gmail.com e-postara idatzi dezakete. **Hiriberriko** saioa, berriz, apirilaren 21ean, larunbatean izanen da, 09:30etik 13:30era, kontzeju etxeko erabilera anitzeko gelan. Nafarroako suhiltzaileen bi erizainek ematen dituzte azalpenak. Arakilgo saioan parte hartu nahi dutenek 948 500 101 edo 634 584 226 telefonoetara hots egin dezake, edo arakilkultura@gmail.com epostara idatz dezake.

## Gazteendako bizikidetza pluralaren aldeko ikastaroa

Altsasun ikastaroa antolatu du Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Gazteekin egiten diren Jardunaldietarako Nafarroako Eskolak: *estereotipoak alde batera utzita, bizikidetza pluralaren alde*. Doako ikastaroa da, 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Ikastaroa apirilaren 21ean eta 28an izanen da, larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara, Intxostiapunta gazte gunean. Ikastaroa Urtxintxa Navarrak emanen du, aisialdiko hezitzaileen eskolak eta Altsasuko Udalaren laguntza du.

Izen ematea apirilaren 19ra arte egin daiteke intxostiapunta@altsasu.net helbide elektronikora idatziz edo 948 564 785 edo 608 617 778 telefonoetara hots egin. Ikastaroaren akaberan parte-hartzaileei titulua emanen zaie. Gazteekin egiten diren Jardunaldietarako Nafarroako Eskolak Altsasun antolatutako ikastaroa II. Nafarroako Gazteria Planaren barruan kokatzen da.

## Udal aurrekontuaren % 0,7ko proiektuen aurkezpena

Pobreziagatik edo zorpetzeagatik garapen bidean diren herrialdeetako ekonomia hobetzeko hainbat herrialdek euren barne produktu gordinaren % 0,7 herrialde horietara bideratzea erabaki zen Nazio Batuen Erakundearen 1980an. Herrialde aberats gutxi batzuk ematen dute laguntza kopuru hori.

Irurtzungo Udalak eskaera hori bere egin zuen eta urteroko aurrekontutik % 0,7 garapen proiektuetara bideratzen du. Dirua banatzeko, gainera deialdia egiten du. Joan den urtean emandako diruarekin zer egin duten azalduko dute gaur, 19:30ean, kultur etxean. Alde batetik, Rode fundazioak Boli Kostako Tekoulebon aukeraberdintasuna sustatzeko programaren berri ematen da lehenik. Ondoren, Mugarik Gabe Nafarroa taldeko ordezkariak *Nikaragua iparraldeko emakumeak erasoetatik libre eta justizian bizitzeko aukerak eragiten* egitasmoa azalduko dute.



Arakil ibaia Oskia ondoan. ARTXIBOA

## Dokumental baten protagonista izanen da Arakil ibaia

Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Ingurumen Kudeaketa SA enpresa publikoak Arakil eta Pirinioko ibaiei buruzko dokumental bana egiteko deialdia egin du. Lanak 32.500 euroko aurrekontua du (BEZ kanpo) eta La Caixa fundazioak finantzatuko du, Ingurumen Departamentuarekin duen hitzarmenaren barruan. Lana azaroaren 30era ko egina behar du.

## Altsasuko Berdintasun Batzordearen ikastaro eskaintza

Altsasuko Emakume eta Berdintasun Batzordearen ikastaroen bigarren eskaintza egitea erabaki du eta hiru dira eskaintza osatzen duten ikastaroak. Lehena *Zaindu zure burua* da. Emakumeen osasuna lantzeko helburuarekin, emakumeek bere burua zaintzeko teknikak eta tresnak jasoko dituzte ikastaro horretan.

Bigarren ikastaroa, berriz, *Jendaurrean eraginkortasunez hitz egin da*. Jendaurrean iritziak, argudioak eta abar azaltzeko emakumeen zailtasunak landuko dira ikastaro horretan. Idoia Bengoetxea Gomez berdintasun teknikariak esan digunez, "ikastaro hori oso komenigarria da taldean lan egiten duten edo unibertsitatean dauden edo lan bila ari diren emakumeendako.

Azken ikastaroa *Sare sozialak. Kanpoan zaude? Facebook, whatsapp, Twitter....* da. Izen emateko edo informaziorako 948 564 823ra hots egin edo berdintasuna@altsasu.net idatzi daiteke.





Urbasako larreak. ARTXIBOA

## Urbasa-Andian ekologikoan lan egin daiteke

Nafarroako Nekazaritza ekologikoaren ekoizpen-ziurtagirian sartu dira mendiko larreak

### SAKANA

Urbasa eta Andia mendietako larreak Nafarroako nekazaritza ekologikoaren ekoizpen-ziurtagirian sartu dira, Nafarroako Gobernuak erabilerak publikoko bi mendiendako egindako eskaeraren ondoren. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioari Isabel Elizalde kontseilariak Nafarroako Nekazaritzako Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko (NNPEK) lehendakari Edorta Lezaunen eskutik jaso zuen departamentuarentzako operadore ekologikoaren ziurtagiria, bi mendietako 15.794 hektarea babesten dituena. Modu horretan, Nafarroako hektarea ekologikoak %21 gehitu dira; dagoeneko, 72.962 hektarea ekologiko daude ziurtatuta.

Herri-larre horien ziurtagiriari esker, animaliek larre horietan bazkatzeko ganaduzale ekologikoek egin beharreko izapide burokratikoak sinplifikatzen dira, horrek inolako mugarik ezarri gabe ekoizpen konbentzionaleko profesionali.

Urbasan eta Andian apirilaren 15etik abenduaren 15era bitarte eduki daiteke azienda, bertako ustiapen gutxi batzuek kenduta, mendian urte osoan egoteko aukera baitute. Baina normalean 4 hilabetetik 6 hilabetera daude.

# Plana garatu gabeko sektoreen arazoendako

Hirigintza plan berriaren bidez konpondu nahi du udalak garatu gabeko sektoreetako arazoak. Hala jakinarazi digu Javier Olo Martinez alkateak, Nafarroako Kontuen Ganberak horretaz gaztigatu ondoren

### ALTSASU

Nafarroako Kontuen Ganberak Altsasuko Udalaren 2016ko kontuei buruzko txostena kaleratu zuen hilaren 8an. Urte hartan Altsasuko Udalaren gastuak 7,6 milioi izan ziren, eta diru-sarrerak 7,4 milioi. Langile-gastuak izan ziren nagusiak, 2,3 milioi-rekin. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak 1,3 milioi egin zuten, eta antzekoa gastatu zen transferentzia arruntetan. Inbertsioetan, berriz, milioi bat gastatu zen. Diru-sarrerei dagokienez, transferentzia arrunten bidez 2,4 milioi bildu zen, zuzeneko zergek bi milioi eman zuten eta tasei esker 890.000 euro.

Nafarroako Kontuen Ganberaren Altsasuko Udalaren kontu orokorrak “ongi islatzen ditu ondarearen irudia, gastu eta diru-sarreraren likidazioa eta udalaren finantza-egoera”.

**Badirudi udalak Kontu Ganberaren azterketa gaintu duela, ezta?**

Bai. Orokorrean esaten du udalak egoera ekonomiko ona duela. Diruzaintzako soberakin handia daukagu. Beti bezala, hobetzeko hainbat gauza daude. Baina, oro har, ekonomia egoera oso ona da.

**Hobetzeko arteen daude gaurkotu gabeko ondasunen inbentarioa eta Atabo Altsasu sozietateko administrariak ez dituztela kontuak egin.**

2016ko kontuak eginda daude eta, jada, erregistroan daude. Kontu Ganberak prozeduraren inguruan ari da. Esaten du administrazio kontseiluak ez zituela berez aurrekontuak



Altsasuko ikuspegia Bargagaindik. ARTXIBOA

## LEZALDEKO PLANA EZIN DA URTE BATEAN UKITU AHT IBILBIDE PROPOSAMENAK ERAGITEN DIOLAKO

aurkeztu. Kontuak batzar nagusian onartzen dira. Berez, kontseiluak onartu zituen eta gero batzar nagusian ere. Prozeduraren inguruan zerbait hobetu behar dugula esan digu. Orain beste modu batera egin behar dugula eta 2017ko kontuekin horrela egingen dugu. Inbentarioari dagokionez, Kontu Ganberaren aurreko txostenean, 2010ekoan, antzeko zerbait esaten zuen. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak dau-

de eta horrekin zerbait egin beharko dugu.

**Bestetik, Nafarroako Kontu Ganberak herrian geldiarazita dauden hirigintzako garapenei ekitea eskatzen du.**

Zerbait egin behar dugu eta erabakiren bat hartu beharko dugu horren inguruan.

**Banaka hasita, zer egoeratan dago Dermauko garapena?**

Udalak duela hilabete batzuk gutuna bidali zien lur-jabeei. Proiektuarekin aurrera egin edo ez egin, zer nahi zuten galdetu zitzaizen. Jabe gehienek ez du sektore horretan ezer egin nahi. Duela urte batzuetako ideia han industrialde bat egitea zen (69.688 m<sup>2</sup>). Hori jakinda, orain erabakiren bat hartu behar dugu.

**Aldamenean Lezalde dago.**

Lezaldek nahiko historia konplexua dauka (lanak 2006an hasi ziren eta kontra zeuden aldamean geldiarazi zuten. 59.312 m<sup>2</sup>-etan 77 etxebizitza eta elkarri atxikitako babes ofizialeko beste 12 egin nahi ziren). Hirigintza Batzordean onartu da lur-jabe bakoitzari gutun bat bidaltzea. Gutun horretan jakinaraziko zaie Sustapen Ministerioak Nafarroa eta Euskal Y Abiadura Handiko Tren bidez lotzeko egindako proposamenak eragiten diela. Berez, ez da Lezaldetik pasatzen, baina soinu eremua Lezalden dago. Horregatik, informazio estudioa argitaratu denetik urte batean ezin dugu Lezalden ezer egin, ezin dugu erabakirik hartu, hain zuzen, ministerioak proiektu hori mahai gainean duelako. (Soinu legedia aldatu da eta A-10 autobiarren eraginagatik proiektua aldatu beharra dago).

**Otadiko urbanizazioa eginda dago.**


Urbanizazioa eginda dago. Han eraiki duten enprekin arazo batzuk ditugu. Aurreko biek alderratuta arazoa ez da hain handia. Arazo txiki horiei erantzuna eman behar zaie.

**Azkenik, Zelandi.**

Soinuren inguruko legedia aldatu da eta horren ondorioz bertan egindako proiektua guztiz aldatu egin behar dugu (A-1 autobiar eragindako soinuak urbanizatu daitekeena txikitu du). Sektore hauek guztiak, bere garaian Arkangoakoaz hitz egin zen ere... orduan errealitate batean zegoen Altsasuko herria. Beste errealitate bat daukagu eta, horregatik hain zuzen ere, hirigintza plan berri bat egin nahi dugu, honi erantzun bat emateko.

**Hori guztia 2016ko kontuez. Aurtengoak zer?**

Aurrekontu proiektua aurkeztu dugu. Alderdiak aste batzuk dituzte hura aztertu eta emendakinak aurkezteko. Espero dugu udal kontuak eta plantilla organikoak apirilaren hasieran egingen den udalaren ezohiko bilkura batean onartzea.



Egunean eguneko albisteak sarean



Albisteak, argazkiak, bideoak, agenda



[guaixe.eus](http://guaixe.eus)

SAKANA

**Zergatik liburua?**

Uste dut ikastolen mugimendua horrelako lan bat behar zuela. Historia-memoriaz hitz egiten den garaian inor ez delako gogoratzen gaur egun gure artean ditugun ikastolez aparte izan zirela beste asko eta asko; gehienak ere, ikastola txikiak, herri txikietan eta zeresan handia izan zutenak euskararen geroan. **Ezagutza galtzen ari delako ere?** Bai. Aurkitu ditut herriak ikastola izan zenik ere inork gogoratzen ez duena.

**Izan daiteke D eredu eskola askoren atzean ikastola dagoelako?**

D eredu asko sortu ziren ikastola txiki horiek integratu zirenean gero D eredu deitu izan zaien eskoletan.

**Nola izan da liburua sortzeko dinamika? Herriz herri ibili zara edo artxibategi lana izan da?**

Banuen dokumentazioa eta material pila. Gainera, gogoratzen nituen bizi izandako urte haiek. Oso gustura ibili nintzen. Lagun pila egin nituen. Ez dut ukatuko banuela lehengo lagun haiek ikusteko gogoia. Herriz herri hasi nintzen, deitzen.

**Zeinen lekukotzak jaso dituzu?**

Batez ere gurasoenak eta irakasleak. Egia da gurasoak haurrak jartzen zituztela. Altsasuko guraso batek 1971z ari zela, esan zidan: "guk uzten genituen haurrak ezagutu gabe noren esku uzten genituen eta jakin gabe eurekin zer egin behar zuten". Hori ezin da inolaz ere baloratu. Aldi berean, irakasleria zein baldintzetan etortzen zen, nondik etortzen zen, oso gazteak ziren gehienetan... Inoiz ezagutu ez zuten herrietara eta zer esperientzia izan zituzten. Horiek ere jaso ditut. Irakasleria oroitua izatea merezi duela uste dut.

**Aitzindari haien asmoa zein zen ikastolak sortzerakoan?**

Zalantza zegoen. Alde batetik, Franco hil eta urte haiek ziren. 1977koak. Aurretik ere sortuak ziren. Euskararen berpizte bat bazegoen herri txikietan ere. Guraso horiek izan ziren gehien bat mugitu zirenak. Horiek irakasleak ekarri zituzten eta bien artean sortu zen mugimendua.

**1986ko abenduan onartutako euskararen legeak eraginik izan zuen?**

Askok. Nafarroako Ikastolen Elkarte saiatu zen lege horretan aldaketa batzuk egiten. Txosten alternatiboa ere aurkeztu zuen. Bertan jasotzen zen, hain zuzen

# "Garai hartako funtzionamendua kontuan hartzekoa da"

**JUAN LUIS LARRAZA** NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEKO ZUZENDARI OHIA

"Bidea eginez. Nafarroako ikastolak 1969tik 1991era arte" liburua aurkeztu zuen lastailaren 26an eta ikastolak dauden herrietan aurkezpenak egin ditu etxarriarrak



Juan Luis Larraza Lakuntza.

ere, ikastolen instituzionalizazioa. Baina Urralbururen gobernuak ez zuen hor amore eman. Ez genuen ezer lortu. Hortik aurrera zapa-lana egin zuen Nafarroako Gobernuak eta ikastola txiki asko ixtera behartu zituen, haurrik ez zutelako batez ere.

**Seme-alaben hezkuntza gauza serioa da. Zalantza izanen zituzten?**

Bai. Baina zalantza baino gehiago ilusioa zegoen euren seme-alabak euskara ikasi eta euskaraz ikas zezaten. Ni ausartuko nintzateke esatera orduan ilusio gehiago zegoela gaur baino. Gaur normalizatu egin da egoera eta uste dut hor guardia jaisten ari garela. Garai haiekin noizean behin konparatzea, edo gogoratzea nola funtzionatzen zuten garai hartako guraso-irakasleak kontutan hartzekoa dela.

**Sakanara etorrira. Gaur egun Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastolak ezagutzen ditugu. Gehiago izan ziren?**

Bai. Urdiain eta Olatzagutia ditugu, Altsasura begira eta hasiera-hasieratik aritu zirenak. Uharte Arakilgoa, Lakuntzako, Arbizuko eta Bakaikuko Etxarri Aranatzera begira zeudenak.

## "GAUR NORMALIZATU EGIN DA EGOERA ETA USTE DUT HOR GUARDIA JAISTEN ARI GARELA"

Izan ziren liskar batzuk Etxarri Aranatzeko eta Altsasuren artean. **Banaka-banaka, zer kontu diezagukezu haietaz?**

Hitz gutxitan esatea oso zaila da. Bi adibide oso desberdinak, baina ondorio berdinarekin. Olatzagutia industria gune bihurtu zen, kanpotar asko etorri zen eta euskara galdu egin zen. Baina kanpotar horiek izan ziren, hain zuzen, ikastolara haurrak bidaltzen lehenak. Uharte Arakilgo, berriz, Jose Mari Ustarrozek kontaktatzen zuten zer zoritxarra izan zuen euskarak herri horretan, treneko langile asko zegoelako, guardia civil asko zegoelako, eta horiek herriko giro guztia zapuztu omen zutelako. Horiek dira bi kasu bereziak. Gero tartean gelditzen zaizkigunak: Urdiain, herri erabat euskalduna da, neurri handi batean apaizari esker; Bakaikua, hor dago, agian Etxarri Aranatzeko eragina izan zuen; Arbizuko kontuan izan behar da zuen apaiza, Don Juan, oso eragile garrantzitsua izan zela maistra izandako Sole Olejarekin batera eta Lakuntzaz, egia esan, informazio gutxitxo jaso dut. Baina Eugenio Ulaiarrek egindako lana aipatzekoa da.

**Zu urtetan Zangozako ikastolako zuzendari izan zara. Eremu ez euskualdunean. Nolako da halako ikastola baten bizitza?**

Oso zaila zen lehen. Baina nik uste lehen zeuden zailtasunak gaintitzea lortu zela eta gaur egun moldatu egin gara egunero bizitzara eta, agian, uste dut, ez Zangozan bakarrik, orokorrean hezkuntza munduak behar duela bere burua berrasmatezea. Zerbait behar du baldin eta proiektu honekin aurrera jarraitu nahi badugu.

**Zergatik bukatzen da liburua 1991n?**

Nik federazioa 1991n utzi nuen, hainbat arazorengatik. Horiek ere liburuan jasotzen dira. Ez dut guraizarik ametitu. Esan zidaten: "hori moztzen baduzu, ordainduko dizugu liburua". Nik ez nuen horrelakorik nahi. Ez dut gauza handirik kontaktzen, baina ulertu nahi duenarendako nahiko kontaktzen dut. 91n utzi nuen. Gero etorri dira beste argitalpen batzuk. Hain zuzen federazioak argitaratutako azkenak gaur egungo ikastolen mugimenduaren berri jasotzen du. Nik uste nahiko era txukun eta eraginkorrean.

Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



# Lan istripuan hildako gazteari agur hunkitua

Pasa den ostegunean izan zuen lan ezbeharraren eta ostiralean hil zen ospitalean. Heriotzak Lakuntza guztia hunkituta utzi zuen. Sindikatuek prebentzio politikak zorrozteko eskatu diote gobernuari eta parlamentuari bi minutuko isilunea egin zuen

## LAKUNTZA

Sakana kooperatiban ostegunean larri zauritu zen langilea ostiralean hil zen Nafarroako ospitale gunean. 30 urteko lakuntzarri metalezko plataforma bat gainera erori zitzaion. Ezbeharrak Foruzaingoa ari da ikertzen. Gazteari azken agurra igande eguerdian eman zion, ezbeharrak jota utzi duen herriak.

Ibarrean lan istripuan hildako azken pertsona ere Lakuntzako lantegi horretan izan zen. Azpikontratutako enpresa bateko Corellako langilea teitlatuan lanean ari zela goitik behera erori eta hil egin zen 2015eko garagarriaren 26an. Epaitegiak azpikontratutako enpresako bi arduradun zigortu zituen joan den urteko maiatzean. Bestela, lan istripuan hildako azken sakandarra, lakuntzarria, 2015eko martxoaren 30ean hil zen Noainen.

## Sindikatuak

ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE, HIRU eta CGT sindikatuek deituta protesta egin zen herenegun. *Prekarietatea hiltzailea, lan istripu gehiagorik ez!* lelopean Untzuetik eta Lakuntzatik auto karabana bana Iruñerantz abiatu zen. Biak ere Nafarroako Gobernuaren Lan Departamentuaren parean bat egin zuten eta dozenaka langilek kontzentrazioa egin zuten.

Sindikatuak ere adierazpenak egin dituzte astean zehar. ELA-tik esan dutenez, "laneko heriotzak ez dira zorte txar edo kasualitate kontuak, saihestu daitezke eta lan baldintza makur eta segurtasun neurri gabeziarekin dute lotura". Gertatutakoaren ikerketa sakona eskatu zuen. ELA-k Nafarroako Gobernuari eskatu dio "bartzertu ditzala lan-osasuneko kontzertazio politika publikoak, eta bideratu ditzala behingoz baliabide ekonomiko nahikoak enpresen kon-



Sindikatuak ordezkariei herenegun kontzentrazioa. ELA

## AURTEN NAFARROAN LAU LANGILE HIL DIRA, EUSKAL HERRIAN, BERRIZ, HAMASEI

trol eta jarraipenerako beharrezkoak diren neurri errealek ezartzeko".

LABek ezbeharraren inguruko guztia argitzea exijitu du. Haren arabera, "prekarietatea, enpleguaren kalitate eskasa eta prebentzio neurri egokiak ez hartzea izan ohi dira lan istripu eta gaixotasunen oinarrian dauden egiturazko arrazoiak: azpikontratazioa, aldi baterakotasunak, kontratu partzialak, lan erritmo biziak, formakuntzarik eza..." LABetik azpimarratu dutenez, "istripu ia guztiak oinarritzeko segurtasun neurri bartzuekin ekidin zitezkeen". Prekarietateagatik "prebentzio arloan atzera goazela" gaztigitu dute LABetik. Sindikatuko ki-deendako lanean hildakoen kopurua eta prekarietatearen ondorioak gizarteratzea nahitaezko da, horregatik, lan istri-

puak deitoratzeko eta salatzen diren ekitaldietan parte hartzea deitu du.

Bestalde, CCOO-k "azken urteetako lan istripuen hazkundearen aurrean hausnarketa sakona eskatzen diegu enpresari eta erakundeari". Datuak eman ditu: "2017an 2016an baino % 3,2 lan istripu gehiago izan ziren Nafarroan, estatuan, berriz, % 0,9. Joan den urteko ilbeltzarekin alderatuta, aurten % 17 lan istripu gehiago izan dira". Nafarroako kopuruak "bataz bestekoaren gainetik daudenez, premiazko neurriak hartzea". Horregatik, Nafarroako Gobernuari "lan ezbehar-kopuruari aurre egiteko plana" eskatu dio. Murrizketen ondorioz bazter utzitako ekimen publikoa berriro hartu eta prebentzio politiken norabidea aldatzea eskatu du. CCOO-tik ezinbestekotzat jo dute lurralde prebentzio delegatuaren figura berreskuratzea.

Bestalde, Nafarroako Parlamentuko Kontrolerako Osoko Bilkura bi minutuko isiltasunarekin hasi zen atzo, pasa den astean lan istripuan zendutako bi langileen memoriaren alde.



Irurtzongo ur biltegia. ARTXIBOA

## Irurtzunerako ur ekarria berritzeko lanen deialdia

Mank-ek Iribasko iturburutik Irurtzunerara ura daraman hoditeriaren zati bat berritzeko lanen deialdia egin du

## IRURTZUN / ARAKIL

Irurtzongo ur hornidura egokia bermatu eta ur ihesak eragotzeko, Sakanako Mankomunitateak Iribasko iturburutik Irurtzongo ur-biltegiara doan sarearen zati bat berritzeko lanen deialdia egin du. Lanak bere gain hartzen dituen enpresak lurra egonkortu, zulatu, lurra mugitu, ur edangarriarendako eta hondakin-uretarako hoditeriak jarri beharko ditu. Lanek 500.032,82 euroko aurrekontua dute (BEZ kanpo).

Enpresek euren eskaintzak apirilaren 4ko 14:00ak arte aur-

keztu ditzakete. Lanak eskaintza onuragarriaren emanen zaizkio.

Bestalde, Arakil aldeko herrien ur hornidura ziurtatzeko, Sakanako Mankomunitateak Urda-lurko ur sarea Irurtzunerantz luzatzeko egitasmoarekin segitzen du. Hurrengo lanak hodi-terria hori Satrustegitik Etxarneraino luzatzea izanen da. Lan horiek nola egin jakiteko Mank-ek proiektuaren erredakzioa egiteko deialdia egin du. Enpresa interesatuek euren eskaintzak apirilaren 3ko 15:00ak arte aurkeztu ditzakete. Aurrekontuan 27.000 eurokoa da (BEZ kanpo).

## Independentzia Egunean Bakaikuko udala ordezkatuta

Independentistak Sareak bultzatu, eta Larrabetzuko herritar independentisten batzordeak antolatuta, Independentzia Eguna ospatu zen Larrabetzun igandean. Egun osoko egitaraua prestatu zuten hausnarketa politiko eta soziala, aldarrikapena eta jai giroa uztartuz. Guztia, burujabe hobe lelopean. Bakaikuko eta beste lau udalek Euskal Herriaren independentziaren aldeko deklaratu dituzte euren udalerriak. Horregatik, udal guztietako ordezkariek onartu duten mozioa aurkeztu zuten eta Euskal Herriaren independentziaren aldeko udal-lerriak direla berretsi zuten. Etxarriko alkatea ere egin zen.

## Euskarari jarritako mugak salatzen, manifestazioa

Euskal Herriaren Euskaraz (EHE) eragileak biharko *Mugarik gabeko euskara. Ofizialtasuna!* leloa duen manifestazioa deitu du biharko Iruñean. 17:30ean abiatuko da autobus geltoki zaharretik. Sakanako EHEko kideek sakandarrak manifestazioan parte hartzea deitu dituzte.

Azaldu dutenez, "Euskal Herriaren berreuskalduntze osora iristeko euskaltzaleok borrokan jarraitu behar dugu. Euskarari eta euskal herritarroei ezartzen zaizkigun mugak gainditu eta euskararen normalizazioan jauzi egiteko burujabetza eskuratzera goazela ozen aldarrikatuko" deitu dute manifestazioa.



Herenegungo ikasle greba identifikatu eta manifestazioan parte hartzen utzi ez zirelako protesta egin zuten gazteek.

# Ikasleek ez dute egungo hezkuntza onartzen

Pasa den astean egindako galdeketan "ikasleen ikuspuntutik sortutako hezkuntzaren alde" egin zuten. Herenegun izan zen grebarekin berretsi zuten. Eta aldarrikapena festa giroan zabalduko dute Altsasun bihar, Ikasle Egunean

## SAKANA

"Sakanako ikasleriak argi utzi du ez dugula egungo hezkuntza onartzen" esan digu Ainhoak. Izan ere, pasa den astean DBH-ko 3. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleak galdeketa batean parte hartuzera deituak zeuden. Bi ziren galdeketa galderak: egun daukagun hezkuntza hau onartzen duzu?

**Ikasleok ikasleondako eraikitako hezkuntza baten beharra ikusten duzu?**

Galdeketa aurreneko galderari % 80ak ezezkoa eman zion eta kopuru berak baiezkota eman zion bigarren galderari. Patxik esan digunez, parte hartzea oso handia izan zen. "Emandako hitzarekin grebarekin bat egin dugu".

## Greba

Ikasle Abertzaleak taldeak deituta greba egin zuten makina bat ikasleek Euskal Herrian herenegun. *Hau ez da gure hezkuntza. Indarrak batuz, hezkuntza sistema gainditzera goaz* leloa zuen deialdiak. "Hezkuntza hau ez da gure mesedetara dagoen hezkuntza, baizik eta burgesiarenera. Egiten dugun irakurketa da hezkuntza ez dagoela pertsonak hezteko, baizik eta etorkizunean bere lan indarra salduko duen objektu akritikoak sortzeko dagoela" azaldu digu Patxik, grebalarrietako batek. Eta Ikasle Abertzaleko kideak honakoa gaineratu du: "horren aurrean Euskal Herri langilearen beharretara egokitutako

**GALDEKETA BIDEZ % 80AK KONTRA EGINDU. GREBA EGINEZ BERRETSI DUTE ETA FESTA EGINEZ ERE**

hezkuntza baten beharra aldarrikatzen dugu. Ikastetxe guztietako problematikak batuz elkartu gara Euskal Herriko hainbat tokietan".

## Identifikatuta

Sakanako ikasle grebalarriak autobusez Iruñera joatekoak ziren. Bigarren mailako errepidetik zihozela Policia Nazionaleko patruilak agertu eta Zuastira desbideratu zituen. Han ikasle guztiak jaitziaz eta banan-banan identifikatu zituzten. Ordu eta erdi izan zituzten. "Zerbait ote genuenaren aitzakia erabili zuten" azaldu digu Ainhoak. "Argi utzi dute helburua zela gu manifestaziora ez joatea".

Iruñera iristerako manifestazioa bukatuta zegoen, baina Nabarreria auzoan protesta kontzentrazioa egin zuten. Eta, gauza bera, arratsaldean Altsasuko udaletxe parean, "eraso errepresibo oso larria dela uste dugu. Militarrek okupatuta bizi gara eta, ondorioz, ezin izan dugu manifestazio batera joan. Eskubide hori ukatua izan zaigu". Gertatutakoa salatu bai baina euren aldarriak zabaltzeko mobilizatzen segitu dutela gaineratu dute biek.

## Ikasle Eguna

Altsasun ospatuko da bihar, ikasleek beraiek antolatuta. Eta ikasleak egunean zehar antolatutako ekitaldietan parte hartzeko moduko egitaraua sortzen ahalegindu dira. *Ez utzi inposaturiko hezkuntza aurpegian lehertzen. Ikasleok erabaki* leloa du biharko egunak. Patxik esan digunez, euren apustua da "ia hurrengo urteetan geroz eta ikasle gehiagok parte hartu ahal duten".

## Ikasle Eguna, larunbatean

- **12:00** Nazioarteko gosaria. Ekain Alegre eta Idoia Granizo bertsolariak.
- **14:30** Bazkaria eta bingoa, gaztetxean.
- **18:30** Flashmoba, plazan.
- **19:30** Elektro txaranga.
- **21:30** Magra-jana.
- **23:00** Atzapar Rock eta Gozo-Gozo, kontzertuak.



## Helena Taberna historia-memoriaz SF78ekin

Sanferminetan duela 40 urte izandako gertakariak gogoratzeko Salazarren eskultura jarriko da ere

## ALTSASU

Aurten berrogei urte betetzen dira 1978ko sanferminetan izandako gertakariak: poliziak zezen plazan sartu ziren eta barruan eta kanpoan kargatu zuen. Ondorioz, tiro batek jota German Rodriguez hil egin zen eta beste dozena bat pertsona balaz zauritu ziren. Festak bertan behera gelditu ziren.

Gertakari horiek gogoan, SF78 herri ekimenak, sanferminetako eskaileraren modura, hilabetero ekitaldiak antolatu ditu. Martxoaren ekitaldien barruan, bihar, 16:30ean, Iruñeko Katakarak liburu-dendan kafe-tertulia antolatu du, honako izenburuarekin: *Historia-memoria eta zinematik, antzerkitik eta musikatik egindako sormen ekarpenak*. Hiru hizlari izanen dira: Enrique Villareal Armendariz, El Drogas, Alberto San Juan eta Helena Taberna zinema zuzendari altsasuarra.

Bestalde, SF78 herri ekimenak gertakariak gogoratzeko Dora Salazarren eskultura bat jarri nahi du Iruñeko zezen plazaren parean garagartzaroan. Eskultura egiteko Internet bidezko diru bilketa edo crowdfundinga abiatu dute Goteo plataformaren bidez egun baten faltan, atzo, lortu nahi zuten gutxieneko kopurua, 22.896 euro, bazuten, 24.564 hain zuzen ere. Diru kopuru egokia 33.534 euro dira. Diru ekarpena egiten duten guztien izenak eskulturaren barruan egonen den denboraren kutxan sartuko dituzte.



Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763





Pentsio duinen aldeko aldarrikapena kalean presente dago.

## Pentsio duinen aldeko mugimendua indartsu dago

Sakanan kontzentrazio jendetsuak egin dira, Iruñeko manifestazioan ere eta mozioak aurkeztu dituzte

SAKANA / ALTSASU

Pentsio duinen aldeko mobilizazioek aurrera segitzen dute. Sakanan ere. Pasa den ostegunean 200 bat pertsonak Altsasuko udaletxearen parean elkartu ziren eskaera egiteko. Larunbat arratsaldean, berriz, adin guztietako makina bat sakandarrek Iruñeko bidea hartu zuten Nafarroa guztiko herritarrekin batera pentsio duinen eskaera ozen egiteko. Estatuko hiriburuetan mobilizazioak izan ziren.

Bestalde Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailak 22- Pentsiodunen Plataformak mozioa aurkeztu diote Altsasuko Udalarari. Hiru eskaera dituzte. Lehena udalak "arbuia dezala pentsioen % 0,25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala eros ahalmenari eutsi behar zaiola". Bigarrena, "1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun atalase-

tik atera gaitezen, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarria betez, eta hori gauzagarria izanen ez den bitartean, eska diezaiola Nafarroako Gobernuari, aipatu kopurua pentsiodun guztiek hilero eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela".

Horrekin batera, "Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzza Sistema ezartzea" eskatu dute, "gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak bermatu daitezke". Azkenik, heldu den urtean "ezarri beharko litzatekeen jasangarritasun faktorearen ezarpena arbuia dadila, zeinak gure pentsioei murrizketa berri eta handia ekarriko dien". Pentsio duinak ezartzearena "borondate politikoa" dela uste dute eta, horregatik, udalaren bidezko gobernuei zuzendu nahi zaizkie.

## Erasoengatik eta mehatxuengatik, gizonezkoa atxilotuta

Foruzaingoak pasa den astean gizonezko bat atxilotu zuen Altsasun. 41 urteko altsasuarra, senarrak erasotu eta mehatxatu duela salatuta. Gertaerak denbora luzez izan direla, eta haurren aurrean, gaineratu zuen emakumezkoak. Halako erasoan aurrean 112 telefonora hots egin daiteke eta prest dagoen protokoloa indarrean jarriko dute.

## Odol-emaileak urtean gutxienez bitan ematera deitu dituzte

Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuak emaileak urtean gutxienez, bitan odola ematera gonbidatu ditu, "odol kopurua bermatu ahal izateko". Aferesi bidezko plasma emaile gero eta gehiago behar direla ere gaztigatu du. Aste Santuko oporretarako erreserbak bermatzeko RH negatiboko taldeetako emaileak behar direla esan du.

# Nafarroako Birako azken etapa bihar Erriberan

Altsasuko auziaren berri Tuterara eta Erriberara eramanen dute herriko eragileek. Bitartean apirilaren 14ko manifestaziora deitzen eta auzia salatzen antolatutako ekimenak han eta hemen biderkatu egin dira

ALTSASU

#AltsasuMartxan, Altsasuko auziaren berri foru erkidegoan barna ezagutarazteko Altsasuko 48 taldek eta elkartek antolatu duten Nafarroako Bira bihar du bere bosgarren eta azken etapa. Altsasuarrak, eta animatzen diren sakandarrek, Tuterara eta Erriberako hainbat herrietara hiru mezu eramanen dituzte Batetik, gertatutakoa ez dela terrorismoa adieraziko dute eta delitu kalifikazio horren kontra azalduko dira. Bestetik, justizia eskaera egingen dute: "funtsezko eskubideen urraketen aurrean gaude eta urraketa beste pertsonengan hedatu daiteke". Eta, azkenik, preso dauden hiru gazteen askatasuna aldarrikatuko dute. Horrekin batera Erriberako biztanleria apirilaren 14an Iruñeko Golem zinematik 17:30ean abiatuko den manifestazioan parte hartzea gonbidatuko dute.

Ohi bezala, Nafarroako Biran makina bat herritarrekin batera auzipetuen gurasoek parte hartuko dute eta haiek izanen dira Tuteran hitza hartuko dutenak. Birako antolatzaileek, ohi dutenez, Erriberako eta Tuterako herritarrei biharko antolatutako ekitaldietan parte hartzea gonbidatu dituzte.

Iruñerria

Orain arte birak egindako lau etapatan 11.000 pertsonen baino gehiagoren parte hartzea izan da. Haietatik 5.500 bat pasa den larunbatean Iruñerrian barna antolatutako hiru bizikleta marxtetako batean parte hartu zutenak izan ziren. Atarrabiatik, Berriozartik eta Barañaindik abiatutakoak Iruñeko Gaztelu plazan bat egin zuten.

Gurasoen izenean Bel Pozuetak hitza hartu zuen kioskotik eta jasotako babesa eskertu zuen. "Zerbaitek batzen bagaitu da gure seme-alabak justiziazko



Birako larunbateko etapa Iruñeko Gaztelu plazan bukatu zen. WWW.EKINKLIK.ORG

gizarte batean bizitzea nahi dugula. Tabernako borroka bategatik 375 urteko espetxe zigorra moduko astakeriarik izatea ez dugu nahi". Auzia Nafarroan epaitzea eskatu zuen berritoren.

Apirilaren 16an hasiko den epaiketaren aurrean sentitzen duten "defentsa falta" adierazi zuten. Auzipetuen eskubideak "urratuak, zapatuak" izan zirela gaztigatu zuten. Azkenik apirilaren 14ko manifestazioan parte hartzeko deia egin zuten.

Han eta hemen

Altsasuko auzia salatu, auzipetuei elkartasuna adierazi eta apirilaren 14ko manifestaziora dei egingen duten ekimenak biderkatu egin dira azken egunean. Asteartean Nafarroako hainbat gazte kolektibok epaiketa "bidezkoa eta inpartziala" eskatu zuten. Atzo iluntzean Gasteizen manifestazioa egin zuten, gaur Bilbon, Tafallan 7an. Durangon, Amasa-Villabonan, Errenterian, Goñi, Lizaso eta beste hainbat tokitan kontzentrazioak egin ziren. Gaur preso dauden hiru gazteek espetxean 394 egun egin dituzte.

## Nafarroako Birako azken egitaraua

- **08:00** Altsasutik abiatu, suhiltzaileen paretik.
- **10:00** Bi auto karabana Castejongo sagardotegitik: Valtierra, Arguedas eta Tuterara eta Corella, Cintruenigo eta Tuterara.
- **12:00** Auto-karabana Tuterako Argentina etorbidean elkartuko dira.
- **12:15** Kalejira Tuterako Queiles pasealekutik, Erriberako gazteak, txistulariak eta gaitariak.
- **13:15** Ekitaldia, Foru plazan: jota kantariak, Roberto Urria abeslariak, Altsasuko Gurasoak eta Enrike Zelaia.
- **13:45-14:00** Tuterako kaleetan poteoa.
- **14:30** Bazkaria, Beterri peñan.
- **17:00** Kontzertua: Tirame del dedo ke me pedo.



Asteazkeneko material aukeraketan Ezkurdiak eta Zabaletak ez zuten bere haserrea ezkutatu. ASPE

## Zabaleta eta Ezkurdia ez daude konforme

**PILOTA** Bihar Olaizolaren eta Imazen kontrako partida erabakigarriko ez zuten euren gustuko materiala aurkitu eta aukeraketa ez egitekotan egon ziren. Binakako finalerako sailkatzeko aukera dute sakandarrek; Altunak eta Martijak oso zail dute

Emozioak bukaerara arte iraungo du Binakako Pilota Txapelketak, finalerdietako 3. jardunaldiak erabakiko baitu nortzuk sailkatuko diren final handirako. Bihar, larunbatean, Ezkurdiak eta Zabaletak Olaizola II.a eta Imaz izango dituzte aurkari Bilboko Bizkaia pilotalekuan (17:00etan, ETB1). Eta igandean, aldiz, Gasteizko Ogetak hartuko du Elezkano II.a-Rezustaren eta Altuna III.a-Martijaren arteko lehia (17:00etan, ETB1).

### Denek dituzte aukerak

Bi garaipen dituztenez, Olaizola II.ak eta Imazek nahikoa dute bihar Ezkurdiaren eta Zabaletaren kontra Bilbon 19 tanto egitearekin edo Elezkano II.ak eta Rezustak galtzearekin. Ezkurdiak eta Zabaletak, aldiz, finalera pasatzeko bihar Olaizola II.aren eta Imazen kontra irabazi beharko lukete lau tantoren edo gehiagoren aldearekin; eta Elezkano II.ak eta Rezustak galduz gero, irabaztearekin nahi-

koa lukete sakandarrek. Elezkano II.aren eta Rezustaren kasuan, Altuna III.aren eta Martijaren kontra irabaztearekin nahikoa lukete finalerako sailkatzeko. Altuna III.ak eta Martijak irabazten badiete, 19 tantoren aldea baino gutxiagorekin, nahikoa lukete ere sailkatzeko. Azkenik, Altuna III.ak eta Martijak oso zaila dute: Elezkano II.ari eta Rezustari irabazi beharko liekete, gutxienez 22 eta 3ko aldearekin, eta, horretaz gain, Olaizola II.ak eta Imazek irabazi beharko lukete.

### Giro nahasia Bilbon

Aurrekoak dira, beraz, Binakako finala zehaztuko duten karranbolak. Ikusmina handia da eta giroa are gehiago nahastu du tarteka gatza eta piperra jartzeko duen material aukeraketak. Izan ere, asteazkenean Ezkurdia-Zabaletak eta Olaizola II.a-Imazek Bizkaia pilotalekuan egindako material aukeraketak bazterrak harrotu zituen.

Bilboko material aukeraketan Ezkurdia eta Zabaleta ez zeuden konforme Martin Alustizak aurkeztutako materialarekin. Saskaian aurkitutakoa ez zitzaion batera gustatu, eta protesta moduan materiala ez aukeratzekotan egon ziren, lan hori Alustizaren arduraren azterketan. Azkenean hiru pilota aukeratu zituzten baina ez zuten haserrea ezkutatu. "Indar handiagoko pilota nahi genuen, pilotakada jotakoan mina ematen duena eta defendatzea kostatzen dena. Exijenteagoa, Eibarren, aurreko partidaren, izan genuena. Ez genuen pilota biziagorik nahi, karga hartzen duen pilota baizik. Nahi genuen pilotarik ez zegoen eta ez gara gustura geratu. Pi-

**EZKURDIA:  
"AMORRATZEN  
NAUENA DA BATZUK  
BERE PILOTA IZATEA  
ETA GUK EZ"**

lotarik ez aukeratzekotan egon gara" azaldu zuen Ezkurdiak.

Pilota bat nahiko azkar aukeratu zuten, baina beste biak hautatzeko nahikoa lan izan zuten. "Pilota batek gorako bote handia zuen, baina hori ere ez zaigu komeni. Finean, hau da dagoena eta honekin moldatu beharko dugu larunbatean, kantxan dena eman beharko dugu" gaineratu zuen Ezkurdiak.

Olaizolak eta Imazek, aldiz, gustuko pilotak aurkitu zituzten, eta harritu egin ziren sakandarren kearen berri izan zuten. "Pilotak motelak direla kezatan badira, adar jotzea da hau, sortako pilota bizenak ez dituztelako aukeratu. Horrelako bat gertatzen den aldiro, ni edo nire bikotekideren bat gaude tartean. Nik ez ditut pilotak etxetik ekaritzen" aipatu zuen Goizuetakoak.

### Partida zaila

"Olaizola oso pozik egongo da bere hiru pilotekin. Berari primeran datozkio. Lurrean grazia dute eta frontisean ez. Gutxi irteten dira, eta lurretik asko dabilta" azaldu zuen Etxarren go atzelariak. Biharko partidari dagokionez, "oso zaila" izango dela aipatu zuten pilotari sakandarrek. "Olaizola sasoi onean dago eta Imaz txapelketa ona egiten ari da. Gure pilota izan bagenu, aukera handiagoa izango genuen. Amorratzen nauena da batzuk bere pilota izatea eta guk ez" nabarmendu zuen Ezkurdiak. Larunbatean ikusiko da.

### Altuna III.a eta Martija, joak

Aurreko asteburuan, finalerdietako ligaxkakako 2. jardunaldian, Ezkurdia eta Zabaleta Altunaren eta Martijaren gainetik pasa ziren eta 22 eta 11 irabazi zieten. Zabaleta izan zen jaun eta jabe. Martijak hasieran ongi eutsi zien arerioen erasoei, baina Zabaleta nagusitu zitzaion. Bestalde, Altunak sekulako kolpea hartu zuen belauna kantxako jarlekuekin kolpatu eta gero, eta atzo erabakitzea zen igandean Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra jokatzeko moduan egongo ote den. Ezinezkoa badu, Jakak hartuko du bere lekua. Dena den, Altuna III.ari eta Martijari izugarri zaildu zaie finalean egotea, baina ezin da etsi, eta ikusteko dago asteburu hunkigarri honetan Binakakoak zer uzten duen.

### AIZKORA Resano Urrezko Banakako Txapelketan

Abian da XXI. Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketa, Eusko Label Saria. Aurreko asteburuan txapelketako lehendabiziko jardunaldia jokatu zen eta bihar, larunbatean, txapelketako 2. jardunaldia erabakiko da Agurainen.

Hamabi aizkolari lehiatuko dira: Elorriaga II.a, Borja Fernandez, Manuel Fraile, Jaime Huertas, Anton Iacobuti, Iñaki Kintana, Eloy Kortxero, Daniel Lopez, Ramiro Llanos, Esteban, Muñiz, Eneko Saralegi eta Iban Resano dorrobarra, txanda ezberdinetan. Lan guztiak bukatuta, denbora onenak kontuan hartuz, bi onenek egingo dute aurrera aipatu txapelketan.

### PILOTA Baztarrrika eta Lakuntza NKJetan txapeldunak

Asteburuan Nafarroako Kirol Jokoen Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren Lizarran. Haurren mailako Eskuz Bina-kakoan, 2 mailako 2. faseko txapeldunak izan ziren Arbuzuko Aldabide taldeko Hasier Baztarrrika eta Xabi Lakuntza. Finalean, 18 eta 13 irabazi zieten Erreka klubeko Salaberriari eta Garañori.

### PILOTA Nafarroak 20 garaipenekin ekin dio GRAVNI txapelketari

Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparralde. Herrialde horietako pilota selekzio amateurrek jokatzeko dute afizionatuen mailako GRAVNI torneo garrantzitsua. Asteburuan hasi zen txapelketa eta Nafarroako selekzioak Gipuzkoako selekzioa izan zuen aurkari. Guztira 34 partida jokatu ziren eta horietatik 20 garaipen lortu zituen Nafarroak. Ezker partidetatik 11 irabazi zituen Nafarroak eta trinketean aldiz, 14 partidetatik 9tan gailendu zen Nafarroa. Beste lehietan, Bizkaia Errioxa hartu zuen menpean eta Iparralde uste baino hobeto aritu zen Arabaren kontra.





Proba nagusian aritzeko 152 duatletek eman dute izena.

## Bihar Arbizuk hartuko du duatleten lekukoa

**DUATLOIA** 10:00etan kategoría txikiko proba (120 partaide) eta 15:30ean proba nagusia (152 duatleta)

Arbizuko 22. Duatloia jokatu da bihar, larunbatean, 15:30ean, Arbizuko Udalak hainbat entitate eta babeslerekin antolatuta.

### Goizean 120 neska-mutiko

Goizeko 10:00etatik aurrera VI. Arbizuko Haur Duatloia jokatuko da, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria. Aurrebenjaminetatik hasita haurren mailara bitartean, 5-14 urte bitarteko 120 neska-mutiko lehiatuko dira.

### Arratsaldean nagusiak: betikoa, herrikoia edo erreleboka

Kadeteak, juniorrak eta eliteak arratsaldean, 15:30ean, lehiatuko dira. 152 duatleta daude izena emanda. Hiru aukera izango dituzte. Batetik, betiko ibilbidea izango da -8 km korrikan, 32 km bizikletan eta 4 km korrikan-. Ibilbidean ez dago aldaketarik, duatletek Arbizuko ibilbidea oso gustukoa dutelako. Ibilbide gogorra da. Lizarragako Katea igo behar da bitan, bizikletan, eta haizeak jotzen badu oso gogorra izaten da. Baina askorendako luze egin daitekeelakoan, proba herrikoia prestatu dute, ibilbide bera izango duena baina distantzia erdia -4 km korrikan, 16 km bizikletan eta 2 km korrikan-. Kadeteak proba herrikoian ariko dira. Horretaz gain, Arbizuko duatloia erreleboka egiteko aukera ere egongo da, hau da, batek korrika eta besteak bizikletaz egiteko aukera. Bikoteak mistoak ere izan ahal dira.

### No drafting

Txirrindula proban duatletek ezingo dute aurreko edo ondoakoaren gurgilari lotuta joan. Hau da, ezin da draftinga egin. Distantziak betetzen ez dituztenek 2 minutuko zigorra jasoko dute. Eguraldiak eragina izango du. Iragarpenak prezipitazio arinak iragartzen ditu, baina hala ere, lasterketa polita eta lehiatua espero da. Aurreko urtean, 2017an, euri-zaparradak, haizea eta elurra ere izan zituzten bidaide duatletek. 103 izan ziren proba egitera animatu ziren ausartak eta soilik 37k izan zuten helmugara iristeko balentria. Pello Osoro izan zen txapelduna (1:44:03).

### Sariak

Lehenengo gizonak eta emakumeak 100 euro, txapela eta garaikurra jasoko dituzte, bigarrenek 75 euro eta garaikurra eta hirugarrenek 50 euro eta garaikurra. Horretaz gain, erreleboetako eta paratriatletetako lehenek Arbizuko produktuen loteak jasoko dituzte Arbizu, Laket eta Floresen eskutik. Aipatzekoa da partaide guztiek txistorra jasoko dutela dortsala bueltatzerakoan. Bukatzeko, auzatea izanen da Aldabide elkartean.

Antolakuntza lanean pertsona ugari ariko dira eta antolatzailak oso eskertuta daude. Bide batez, segurtasuna bermatzeko lanean egongo diren boluntarioei kasu egiteko deia luzatu dute.



Gure duatletek euriari eta hotzari egin behar izan zieten aurre larunbatean Altsasun jokaturako proban. N. MAZKIARAN

# Sakana taldea onena Altsasuko Duatloian

**DUATLOIA** Euriari aurre eginez, 195 duatletek hartu zuten parte VIII. Altsasuko Copreci Duatloian. Ortiz de Zaratek eta Oizartzabalek irabazi zuten eta Mikel Astiz eta Marta Diego izan ziren lehen sakandarrak. Sakana Triatloi Taldea izan zen talde onena

## Sakandarrak Altsasun

### Gizonak

1. Iker O. de Zarate: 1:07:08  
 7. Mikel Astiz (Hiruki): 1:07:49  
 9. Sergio G. Eulate (Sak.): 1:08:25  
 19. J. Luis Maiza (Sak.): 1:10:54  
 25. F. Benjumea (Saltoki): 1:11:04  
 26. J. C. Gomez (Sak.): 1:11:06  
 30. Ivan Sobredo (Sak.): 1:11:24  
 36. Gorka G. Eulate (Sak.): 1:12:16  
 37. Fco. J. Gomez (Sak.): 1:12:16  
 58. Iñaki Alvaro (Sak.): 1:15:27  
 70. J. Ig. Mikeo (Hiruki): 1:17:41  
 78. J. Ig. Iturrioz (Sak.): 1:18:17  
 94. G. Chamorro (Sak.): 1:21:51  
 134. A. Lizarraga (Sak.): 1:35:56  
 137. Peio Bergara (Sak.): 1:36:27  
 \*Borrega, Asurabarrena eta Gallego erretiratu egin ziren

### Emakumeak

1. Lourdes Oizartzabal: 1:21:01  
 19. Marta Diego (Indep.): 1:38:10  
 26. Silvia Perez (Sak.): 1:43:32

Larunbatean ez zegoen giro, baina euriari eta hotzari aurre eginez, 195 ausartek ekin zioten VIII. Altsasuko Copreci Duatloian, Yeray Lanzen aldeko isilunearen ondoren. Horietatik 167k lortu zuten proba osatzea, 5 km korrikan, 22 km bizikletan eta 2,5 km korrikan ibili eta gero.

Gizonezkoetan lehia oso estua izan zen, baina, azkenean, Arabatri taldeko Iker Ortiz de Zarate arabarra izan zen azkarrena (1:07:08). "Bizirautea lortu dugu" zioen helmugan txapeldunak. 2 segundo eskasera sartu zen Laboratorio Sys taldeko Gonzalo Fuertes. Biek borroka polita izan zuten. "Bizikleta tartean erreleboan aritu gara biok, baina herrira iristerakoan atzeko taldeak harrapatu gaitu. Azken trantsizioan azkar ibili naiz eta nire erritmoa ezarri dut. Azken 300 metroan estutu egin dut, erritmoari eutsi diot eta metro batzuk atera izan ditut" adierazi zuen Ortiz de Zaratek.

Emakumezkoetan, ordea, 44 urteko Lourdes Oizartzabal lezotarrak ez zuen areriorik izan. "Gogorra izan da, euriagatik batez ere. Bizikleta hartzerakoan sekulako hotza pasa dugu" nabarmendu zuen txapeldunak. Duatleta gehienek biziki esker-tu zuten helmugan eskaini zitzaizaien salda beroa. Auzatearekin indarrak berreskuratzeaz gain, masajea hartu ahal izan zuten.

Altsasun 19 sakandarrek hartu zuten parte. Gizonezkoetan Hiruki Valle de Egües taldean dabilen Ihabarko Mikel Astiz izan zen azkarrena, helmugara 7.a sartu zena (1:07:49). Aipatzekoa da Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza izan zela beterano 2 mailako txapelduna eta bere taldekide Peio Bergara beterano 3 mailako txapelduna. Sakana Triatloi Taldekoak taldekako txapelketan onenak izan ziren. Aspaldiko partez, bi emakume sakandar aritu ziren eta azkarrena Marta Diego altsasuarra izan zen (1:38:10).





Beñat Katarain lasterketan. Aritz Egea baino ia lau minutu gehiagora sartu zen helmugan. UTZITAKOA

# Beñat Katarain bigarrena Jurramendi Trailean

**MENDI LASTERKETAK** 297 korrikalarik hartu zuten parte Jurramendi Trailean eta Aritz Egea gailendu zitzaion lakuntzarrari. Arriarango Xabier Mendizabalen Oroimenezkoan ere maila bikaina eman zuten mendi korrikalari sakandarrek

Igandean 297 korrikalarik hartu zuten parte Aiegin jokaturako IV. Jurramendi Trailean (24 km eta 1.700 m desnibel +). Horietatik 284k lortu zuten proba despeditzea. Ez zen sorpresarik egon eta aurten Salomon Team taldean debutatu duen Aritz Egea (2:04:41) izan zen nagusi, gizonetako, eta Alizia Olazabal beteranoa (2:41:22) emakumeetako. Bigarrenari, Beñat Katarain lakuntzarrari, ia lau minutu atera zizkion Egeak (2:08:52). Bestalde, II. Jurramendi Txiki Trailen (11 km eta 600 m desnibel positiboa) 99 korrikalarik hartu zuten parte. Ibon Arregi lakuntzarra 16.a sailkatu zen (1:08:48).

## Sakandarrak Arriaranen

Larunbatean Xabier Mendizabalen Oroimenezko VII. Mendi Lasterketa jokatu zen, Beasaingo Arriaranen, bi distantzian. 23 km-ko proba Martin Diez segurarrak (1:49:45) eta Vanessa Pelaez andoaindarrak (2:17:28) irabazi zuten. Aitor Hernaiz 38.a sartu zen (2:18:41). Eta proba laburrean (11 km) Iñaki Arriaran oñatiarra (49:17) eta Oihana Arratibel (59:22) izan ziren azkarrenak. Juan Larrea altsasuarra 7.a sartu zen (52:46), Jabi Gasanz altsasuarra 10.a (54:01), Fermin Azkargorta iturmendiarra 21.a (56:12), Jokin Bereziartu 22.a (56:12) eta Joseba Galarza iturmendiarra 49.a (1:05:46).

## Sakandarrak

### Jurramendi Traila (24 km)

1. Aritz Egea:	2:04:41
2. Beñat Katarain:	2:08:52
9. Ander Erice:	2:22:44
11. Mikel Altadill:	2:24:05
18. Joxeja Maiza:	2:29:45
36. Alberto Razkin:	2:39:43
74. Iñaki Zabaleta:	2:49:59
81. Juan D. Lakuntza:	2:52:49
93. Fran Araña:	2:55:22
202. Henrik Vacun:	3:22:11
247. Iban Verdugo:	3:39:07
248. Maria Goikoetxea:	3:39:07

### Jurramendi Txikia (11 km)

1. Alberto Azparren:	58:41
16. Ibon Arregi:	1:08:48



Mank-ek aurretik antolatutako eskalada ikastaroa. ARTXIBOA

## Lagun, goazen eskalatzera, zergatik ez?

**ESKALADA** Mank-ek eskalada hastapeneko ikastaroa antolatu du apirilean San Fauston, Eginon eta Uhartan

Eskaladak badu zerbait berezia, erakartzen du. Baina, nola hasi? Kezka hori dutenei begira, eskalada ezagutu nahi dutenendako eskalada hastapen ikastaroa antolatu du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. “Helburua haitzan eskalatzeko oinarrizko ezagupen eta teknikak lortzea da” adierazi dute kirol zerbitzutik.

Ikastaroa 8 urtetik aurrerako gizon eta emakumeei begira antolatu du Mank-ek. Ion Gurutz Lazkoz Martinez eskalataile arbizuarrak gidatuko du. Apirilaren 20an, 21ean eta 22an izanen da. Apirilaren 20an, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara ariko dira, Sakanako Mankomunitatean, Lakuntzan, bereziki eskaladaren alde teorikoa eta mota ezberdinetako azalpenak ematen. Eta apirilaren 21ean

eta 22an, larunbatean eta igandean, goizeko 10:00etatik 17:00etara murgilduko dira eskaladan. Mankomunitatean jarriko dute hitzordua eta San Fauso, Eginon eta Uhartan Arakilgo eskalada gunetara joateko kotxeak antolatuko dituzte. Arratsaldera bitarteko txangoak direnez, norberak bere bazkaria eraman beharko du.

Materialari dagokionez, arnesa, katuak eta kaskoa beharrezkoak dira. Norbaitek ez baditu, antolakuntzak utziko dio materiala.

### Izena ematea zabalik, apirilaren 13ra arte

Zabalik dago apirilaren 13ra arte, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus) baina taldea bete ahala itxi egingo da. Prezioa: 39 euro.

## Iskiza Sakana ongi hasi da

**GIMNASIA ERRITMIKOA** Iskiza Sakana gimnasia erritmiko taldeak ongi hasi du Nafarroako Banakako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa. 3. mailan, kadeteetan, Irune Argüelles 2.a sailkatu zen eta Maitane Agirre 3.a, eta jubeniletan Miriam Martinek 3.postua lortu zuen. Eta 4. mailako kimuetan Ane Iturrioz 3.a sailkatu zen. Ea hasiera onak segida bikaina duen.



ISKIZA SAKANA

## SASKIBALOA CBASKek lider jarraitzen du I. Senior Autonomikoan

Gizonezkoen I. Senior Autonomikoko lider jarraitzen du Altsasuko CBASKek, Valle de Egüesi 64 eta 70 irabazi eta gero. 35+7 puntu ditu Altsasuko taldeak, eta 33+3 bigarrenak, Liceo Monjardinek. Bihar, larunbatean CBASKek sailkapenean zortzigarrena den Muthiko Alaia taldea hartuko du Zelandin, 16:45ean.





Aurreko urtean erantzun bikaina izan zuen Arbizuko zumbathoia eta aurten ere halako erantzuna nahi lukete izan.

## Zumbathon solidarioa antolatu dute Arbizun

**ZUMBA** Bularreko minbiziaren aurkako Arbizuko zumbathoia bihar jokatu da, Arbizuko kiroldegian, goizeko 11:00etatik aurrera. Parte-hartzaileek 5 euro eta ikusleek euro bat ordainduko dute eta bildutakoa Saray taldearendako izango da

Biharko, larunbaterako, bularreko minbiziaren kontrako zumbathoia solidarioa antolatu dute Arbizuko kiroldegian. Arbizun zumban aritzen diren etatik sortutako Arbizuko Zumba taldeak antolatu du ekimena, talde horretako Xabi, Kepa eta Mayrak bereziki. “Aurreko urtean esklerosi anitza duen Virginia Saez laguntzeko antolatu zen zumbathoia eta aurten era-

kunde bat laguntzea erabaki genuen. Eta bularreko minbiziaren kontra lan egiten duen Saray elkarteak aukeratu genuen” azaldu digu Arbizun eta Altsasun zumba monitorea den Mayra Palopek. Saray elkartearen eta Arbizuko Udalaren laguntza izan du Arbizuko Zumba taldeak biharko ekimena antolatzerakoan, eta baita beste hainbat udal eta saltokiren babesa.

Goizeko 11:00etan abiatuko da saioa. Saray elkartearen aurkezpena egingen dute eta zumbathoia gidatuko duten bost monitorea aurkeztuko dituzte. Elena, Carolina, Ainhoa, Itziar eta Mayra monitorea gidatuko dute Bularreko Minbiziaren Kontrako Zumbathoia solidarioa. Elena Funeseko monitorea da, Carolina Legutianokoa, Ainhoa Aguraingoa, Itziar Iruñekoa eta

Mayra Altsasu eta Arbizukoa. “Eskaleta bat prestatu dugu eta oholza gainera igoko gara monitorea, txandaka, bakoitzak gure zumba koreografiak gidatuzera. Gutxi gorabehera bi orduko emanaldia izango da, eta bukaeran hainbat produktu lote zozketatuko ditugu, Joseba Ezkurdiaren kamiseta eta Osasunako bi kamiseta” gaineratu du Mayrak.

### Bildutakoa Sarayrendako

Bularreko minbiziaren aurkako borrokarako diru biltzeta egingo da. Horrela, zumbathoian parte-hartuko dutenek 5 euroko sarrerara ordaindu beharko dute eta ekitaldia ikustera gerturatzen diren ikusleek, aldiz, euro bateko sarrerara. Antolatzaileak ekimen solidarioan parte hartuzera animatu dituzte zumba zaleak eta ikusleak. Jasotakoa Saray elkartera bideratuko da. Bestalde, Sarayk euren lanaren, eta jardueren berri emateko informazio mahaia jarriko du.

### Aurreko urteko arrakastatsua izan zen oso

Aurreko urteko Arbizuko Zumbathon Solidarioak esklerosi anitza gaixotasuna duen Virginia Saez arbizuarren aldeko diru biltzeta egin zuen. Arrakasta handia izan zuen ekimenak, 500 sarrerara saldu zituzten eta parte hartzaileak 300dik gora izan ziren. Horretaz gain, kamisetak ere saldu zituzten, 10 eurotan.



Gustura ibili ziren txikiak. SAKANA TRIATLOI

### DUATLOIA Gure duatleta txikiak ongi ibili ziren Altsasun

Larunbat goizean Nafar Kirol Jolasetarako (NKJ) baliagarria zen VIII. Altsasuko Haur Duatloia jokatu zen, kategoria txiki-koen proba, Txioa haur ikastolako inguruneetan. Guztira 125 duatleta zeuden izena emanda. Sakandarrei dagokienez, aurrebenjaminen gizonetakoan Oihan Andueza 4.a sailkatu zen eta benjaminen gizonetakoan Mikel Arrizabalaga 2.a, Luca Martinez 3.a eta Jon Ducar 4.a. Kimuen gizonetakoan Alain Razkin 4.a sartu zen eta Ekain Imaz 5.a. Bukatzeko, haurren mailan emakumeetakoan Nahia Imaz 2.a sailkatu zen eta gizonetakoan Hegoi Lakuntza 6.a, Xabier Borrega 9.a eta Adrian Martinez 14.a.

## Sakana Patin: aurkezpena

**IRRISTAKETA** Larunbatean 2018ko denboraldia aurkeztu zuen Sakana Patin taldeak, Olaztin. 33 irristalari dabilta aurten taldean. Horretaz gain, igandean bertan estreinatu zuten ekipazio berria aurkeztu zuten, Mobel Sport etxekoa. Copreci Altsasuko eta Sakana Kooperatibak emandako laguntza eskertu zuten Sakana Patin taldekoek.



SAKANA PATIN



Andra Mari final guztiak jokatu ditu; Iñigo Aritzak, kadeteen konbinatuko eta sokatirako guztiak.

# Nafarroako Kirol Jokoen finala igandean

**HERRI KIROLAK** Andra Mari ordezkariek izango ditu proba konbinatuetako eta sokatirako final guztietan eta Iñigo Aritzak kadeteen konbinatuetan eta sokatiran. Eguraldi txarra eginez gero, Mugairin jokatu da finala

Nafarroako Kirol Jokoen lau jardunaldi jokatu dira dagoeneko. Lehena Etxarri Aranatzek jokatu zen, bigarrena Betelun, hirugarrena Antsoainen eta laugarrena Beran, igandean. Txapelketako finala igandean jokatu da Berroetan, goizeko 11:00etatik aurrera. Eguraldia kaxkarra bada, Mugairiko San Martin ikastetxeko frontoiak hartuko du final handia.

Etxarriko Andra Mari ikastolak herri kirol proba konbinatuetan eta sokatiran jokoan dauden final guztietan hartuko du parte. Altsasuko Iñigo Aritzak, aldiz, kadeteen proba konbinatuko finalean eta sokatirako final guztietan ariko da.

## Herri kirol proba konbinatua

Txapelketako laugarren jardunaldian kimuen mailako proba konbinatuetan 17 talde lehiatu ziren, 5 multzotan banatuta. Igantzi izan zen azkarrena (6:47), Andra Mari 5 (6:53) eta Andra Mari 7 (6:55) taldeen aurretik. Sakanako gainontzeko taldeei dagokienez, Andra Mari 6 zortzigarrena sailkatu zen (7:13), Iñigo Aritzako Intsuburu bederatzigarrena (7:17), Iñigo Aritzako Bargagain hamabigarrena (7:25), Andra Mari 3 hamahirugarrena (7:26), Iñigo Aritzako Gainsol hamalagarrena (7:33), Andra Mari 4 hamabostgarrena (7:40), Andra Mari 1 hamaseigarrena (7:46) eta Andra Mari 2

hamazazpigarrena (7:56). Lau jardunaldietan orain arte egin dako lana kontuan hartuta, ondoko lau taldek jokatu dute igandeko final handia: Andra Mari 5, Igantzi, Andra Mari 7 eta Antsoain B.

Haur mailako proba konbinatuetan, 13 talde lehiatu ziren igandean Beran, 4 multzotan banatuta. Denbora guztiak kontuan hartuta, Andra Mari 3 gailendu zen (8:54), Basaburua (8:59) eta Araxes (9:20) taldeen aurretik. Andra Mari 2 laugarrena sailkatu zen (9:20), Iñigo Aritzak hamargarrena (10:34) eta Andra Mari 1 hamaikagarrena (11:52). Igandeko final handirako ondoko lau taldeak sailkatu dira:

Andra Mari 3, Araxes, Berriozar A eta Basaburua.

Eta kadeteen mailako proba konbinatuetan, txapelketako laugarren jardunaldia jokatu zuten maila horretan lehiatzen ari diren lau taldeak. Iñigo Aritzak izan zen azkarrena (10:16), Basaburua (10:22), Andra Mari (10:25) eta Berriozar (11:07) taldeen aurretik. Txapelketa hau ligaxkan jokatu ari dira eta lau taldeek ligaxkako azken jardunaldia izanen dute jokoan igandean Berroetan.

## Sokatira

Sokatiran gure taldeak oso fin ibili ziren. Haur mailan (480 kilo), 12 talde lehiatu ziren 3 multzotan banatuta. A multzoan Berriozar Ak irabazi zuen (4 puntu), Iñigo Aritzak bigarrena izan zen (2 puntu) eta Andra Mari 2 hirugarrena 82 puntu); B multzoan Andra Mari 3 eta Andra Mari 4 taldeek berdindu egin zuten (3,5 puntu) eta C multzoan Basaburua gailendu zen (4 puntu) eta Andra Mari 1 hirugarrena sailkatu zen (2 puntu). Lau jardunaldiak kontuan hartuta, igandeko finala ondoko sei taldeek jokatu dute: Berriozar A, Iñigo Aritzak, Andra Mari 3, Andra Mari 4, Basaburua eta Araxes.

Bukatzeko, kadeteen mailako sokatiran (540 kilo), Basaburua izan zen finena Beran (5 puntu). Andra Mari 1 izan zen bigarrena (4 puntu), Iñigo Aritzak hirugarrena (3 puntu), Anaraberri laugarrena (2 puntu) eta Andra Mari 2 bosgarrena (puntu 1). Txapelketa ligaxkara jokatu ari da eta asteburuan txapelketako azken jardunaldia jokatu dute aipatu bost talde hauek Berroetan. Eguraldi txarra egiten badu, Mugairin ariko dira.

## ARETO FUTBOLA Bartzelona hartuko du gaur Osasuna Magnak

Espainiako Kopa atzean utzita Osasuna Magna final laurdetan erori zen, Movistar Inter taldearen kontra partida oso lehiatua 2 eta 1 galdu ostean. Lehen Mailako Areto Futboleko Ligan dituen talde berdeak.

Sailkapenean laugarrena da Osasuna Magna, 49 punturekin, eta 5 puntura du Bartzelona, sailkapenean hirugarrena dagoen

taldea. Hain zuzen ere, gaur, ostiralean, Bartzelona hartuko du Osasuna Magnak Anaitasuna pabilioian, 21:15ean. Hirugarrenarekin distantzia gutxitzeko aukera bikaina du talde berdeak eta ikusmina handia da, Bartzelona puntako taldea baita. Baina Osasuna Magna beti handitu egiten da talde ahaltsuen kontra aritu beharra duenean, eta ea gaur ere hala gertatzen den.

Gaurkoa klubaren eguna izendatu dute eta abonatuak ere sarrera atera beharko dute.

## FUTBOLA Emakumeen Futbol 8 Altsasuk bigarren garaipena

Emakumezkoen Futbol 8 mailako Altsasu taldeak denboraldiko bere bigarren garaipena lortu zuen asteburuan. Altsasuarrek 6 eta 4 irabazi zioten Itarua Uharte taldeari. Maddi, Aintzira eta Laida izan ziren golegile altsasuarrek. Egun Emakumezkoen Futbol 8 mailako 2. fasean lehiatu dabilta altsasuarrek, Kopan, eta larunbatean

Oberena taldea hartuko dute Dantzalekun, goizeko 11:00etan.

Futbol 8 mailan, berez, 15 urtera bitarteko neskek lehiatzen dira, baina Altsasuko taldean gehienek 8 eta 10 urte bitartean dituzte. Beste taldetan helduagoak dira, eta hori izugarri nabaritzen da adin hauean. Beraz, meritua badute. "Gogoz etortzen dira entrenatzera. Orain arte partida ia gehienak galdu egin dituzte, baina berdin zaie. Ilusioa dute" aipatu digu entrenatzaileak, Ane Canterok.

## PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Lagun Artea – Ardoi B	1-1
Etxarri Aranatz – Amigó	2-1

SAILKAPENA	
1. Lagunak	45
12. Lagun Artea	25
13. Etxarri Aranatz	23

## PARTIDUAK

LARUNBATEAN

16:00 Amigó – Lagun Artea *Amigó*

IGANDEAN

17:00 Castillo Tiebas – Etxarri *Tiebas*

Javik eta Darlingek aurreratu zuten Etxarri. Amigó gerturatu zen, baina 3 puntuak etxean geratu ziren. Lakuntzan, Yerai Lanz gogoratu eta gero, ongi ibili zen Lagun Ardoi aurreratu zen eta bana berdintzea lortu zuten lakuntzarrek.

## ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Burladés – Altsasu	4-1

2. FASEKO SAILKAPENA	
1. Berriozar	20
9. Altsasu	7

## IGOERA FASEA. PARTIDUA

LARUNBATEAN

17:00 Altsasu – Iruntxiki *Dantzaleku*

Igoera fasean, berehala aurreratu zen Burladés, hiru golekin. Guisadok Altsasuren aldekoa lortu zuen, baina laugarrena sartu zuen Burladésen.

## ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK	
Zaldua – Elomendi	3-0

SAILKAPENA	
1. Unziti	53
3. Zaldua	34

## PARTIDUAK

LARUNBATEAN

Zehaztu gabe Modernillo – Zaldua

Zaldua hirugarren postura igo da.

## EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Altsasu – Iruntxiki	3-0

SAILKAPENA	
1. Berriozar	67
13. Altsasu	18

IGANDEAN

19:30 Beti Kozkor – Altsasu *Lekunb.*

Emakumezkoen Erregional mailan, Altsasuko neskek 3 eta 0 irabazi zioten Iruntxikikoei, Dantzalekun jokatuak lehiatu. Igandean sailkapenean 16.a den Beti Kozkorren kontra ariko dira Lekunberrin, 10:30ean.





Igor Arrietak eraso bikaina jo zuen mendian gora. UTZITAKOIA

## Aznarren eta Arrietaren garaipen bana Aiarako Biran

**TXIRRINDULARITZA** Burundakoak Respaldizako etapa irabazi zuen eta Aralarkoak Okondokoa

Asteburuan Aiarako Birako azken bi etapak jokatu ziren eta bietan txirrindulari sakandarrak izan ziren protagonistak. Euriari, hotzari eta kazkabarrari aurre eginez, larunbatean Respaldizan jokatu zuten Aiarako Birako 4. etapa Burundako Quesos Albeniz taldeko Unai Aznarrek irabazi zuen (1:11:04). 57 segundo atera zizkion Flavio Ortizi. Bere taldekide Hugo Aznar 4.a sartu zen, Sergio Lopez 14.a, Iker Mintegi 15.a eta Antonio Gonzalez 36.a. Unai Aznarrek mendiko eta tartekako helmugan sailkapenak irabazi zituen eta

Quesos Albeniz izan zen etapa-ko talderik onena.

Etapa horretan ez ziren Aralarko Intersport Irabiakoak aritu. Igandean Okondon jokatu zuten, aldiz, bai. Eta sekulako erakustaldia eman zuen Igor Arrietak. Uharte Arakilgo txirrindulariak eraso itzela jo zuen eta bakar-bakarririk iritsi zen Okondora (1:02:29). 2:18 atera zizkion Mikel Berazari. Martzel Etxeberria 56.a sartu zen, Jon Erdozia 84.a eta Mikel Lizasoain 85.a. Igor Arrietak ere mendiko sailkapena irabazi zuen. Quesos Albeniz ez zen aritu.



Sopela Womens taldekoak, Sara Martin zoriontzeko. SOPELA WOMENS TEAM

## Emakumeak lanean

Eibarko Emakumezkoen Sari Nagusian, kadeteetan Maria Beraza 37.a sailkatu zen, juniorretan Bakarne Gonzalez 8.a eta Leire Maiza 9.a eta 23 urtez azpikoan Maialen Aramendia 34.a. Ongi hasi dute denboraldia txirrindulari sakandarrek.



Lilasterketan parte hartu zuten emakume batzuk, hasi baino lehen.

## Euriari aurre eginez, emakumeen Lilasterketa aurrera

**ATLETISMOA** SDARI errekonozimendua egin zioten, emakumezkoen futbola sustatzeagatik

Igandean ez zen giro, baina hala ere hainbat emakume, 30etik gora, animatu ziren Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako V. Lilasterketan parte hartzeri. Proba ez lehiakor honen helburua emakumeen parte-hartzea sustatzea da, emakumeek bizitzako alor guztietan, kirolean barne, duten papera eta presentzia erakustaraztea. Korrika, patinetan, oinez, aulkixoetan... eta peto morea gainean, Lilasterketan aritzera animatu ziren emakumeak, euriari aurre eginez.

kumeek bizitzako alor guztietan, kirolean barne, duten papera eta presentzia erakustaraztea. Korrika, patinetan, oinez, aulkixoetan... eta peto morea gainean, Lilasterketan aritzera animatu ziren emakumeak, euriari aurre eginez.



Ane Cantero eta Alfonso Castellano, sariarekin. N.MAZKIARAN

## Sociedad Deportiva, omendua

Lilasterketa bukatuta, Gure Etxean, Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak Sociedad Deportiva Alsasua taldea omendu zuen, emakumezkoen futbola sustatzeko klubak egiten duen lana aitortuz. Ane Cantero futbolari eta entrenatzaileak eta SDAko futbol koordinatzaile eta emakumezko taldearen entrenatzaile Alfonso Castellano jaso zuten oroigarria, LHko institutuko sarreran dagoen eskultura miniaturan, 3D-an, Koedukazioaren sinboloa dena.

SDAk eta Gorka Paskuak, lan handia egin zuten emakumezkoen futbol taldeak atera ahal izateko. Egun emakumezkoen bi futbol talde ditu, bata erregional mailan eta bestea Futbol 8 mailan aritzen direnak. Talde gehiago sortzea nahiko lukete eta helburu horiek lortzeko lanean jarraitzen du Altsasuko taldeak.

## Tropel juniorra Altsasun bilduko da igandean

**TXIRRINDULARITZA**

Sociedad Deportiva Alsasua LIX. Erramu Trofeoa dago jokoan

Sociedad Deportiva Alsasua (SDA) taldea igandeko jubenilen mailako LIX. Erramu Trofeoa antolatzeko azken lanetan murgildua dabil. Aurreko urtean ibilbidean aldaketak egitea erabaki zuen SDAk, proba Altsasutik maizago pasatzeko, eta izan zuen arrakasta ikusita iazko ibilbideari eutsi diote antolatzaileek. Lizarragako kate-raino joan beharrean, Altamira hirutan igoko dute eta, guztira, zazpi aldiz pasako dira Altsasutik. Ibilbide aldaketarekin lasterketa herrian gehiago txertatu nahi izan dute, herrian lasterketa dagoela behin eta berriz sentitzeko eta herriko giroa hobetzeko.

**Junior onenak**

LIX. Erramu Trofeoa parte hartuko duten juniorrak goizeko 11:00etan aterako dira SDAko egoitzatik. Urdiainera iritsita, igerilekuetako bidea hartuko dute eta San Pedrotik Altsasura iritsiko dira. Bitan egingo dute bide hori. Ondoren, Olaztira joko dute, handik Altamira igotzeko. Urdiaineraino iritsiko dira, atzera ere San Pedroko bidea hartzeko. Bitan egingo dute buelta hau. Ondoren, Zegamako bidea hartuko dute, eta bidegurutzean buelta hartu, atzera ere Altsasutik pasatzeko. Eta, bukatzeko, Altamirara azkeneko igoera egingo dute eta Altsasura sartuko dira, San Juan kaletik sartu eta Sociedad Deportivako egoitzan egongo den helmugara heltzeko. Guztira 77,3 km osatuko dituzte juniorrek eta bi ordu pasatxo behar izango dituztela aurreikusten da.

Proban junior mailako txirrindulari onenak bilduko direla espero da. Tartean egonen dira Quesos Albeniz eta Intersport Irabia taldekoak. Behin proba bukatuta, sari ematea izango da Sociedad Deportivako egoitzan.





SAKANAKO MENDIZALEAK



SAKANAKO MENDIZALEAK

### Aingeru Mikeo

Sakanako Mendizaleak taldeak antolatuta, Jaizkibelgo zeharkaldia helburu, autobusa 6:30ean hasi zen jendea hartzen, eta herriz herri 47 mendizale gazte (izpirituz) batu ginen. Egun argiz, 8:30ak aldera heldu ginen Hondarribiko Guadalupeko baselizara, Jaizkibelgo erdibidean. Baselizak XVI. mendeko erroak baditu ere, egungoa XIX.ean eraiki zen. Hondarribiko setioaren garaipena Guadalupeko Andre Mariari eskertzeko irailaren 8an ospatzen da Alardea.

Bi talde antolatuta, batek bide laburxeagoa omen, eta Luisek gidatuta, aldapari ekin genion. Laino eta hezetasuna, ateri eta ez oso hotz; hortaz, animoso, Jaizkibelgo bizkarra lehenengo helburua. Behin bizkarra lerro-

# Guadalupe - Pasaia

*Platerak txiki samarrak omen.* Hondarribiko Guadalupe baselizatik, Pasai Donibanera Sakanako Mendizaleek egindako ibilaldiaren kronika.

tuta, berehala begiztatu genuen lehenengo dorrea, itxuroso altxatzen dena, mendiaren bi egiak mendean hartuz. Itsaso grisaxka amaigabea iparraldera eta, Oarsoaldeko korridorea eta Pirinioak, lainotsu izan ez balitz, hegoaldera. Dorrea nahiko hondatuta. Karlistek sei dorre eraiki zituzten gailurrean zehar zelata egiteko. Bostek diraute zutik. Ikuspegi ederra! Gorago, aldapa

motelduta, punturik gorenera, Alleruko gainera (547 m.). Han, beste dorre bat, San Enrike gazteluaren hondarrak (karlistek eraikia), telekomunikazio antenak eta aparkaleku eremua. Eguraldiak makurrerako itxura zuenez, hamarretakoa, 10:30ak aldera.

Hurrengo saioari, euri mehea hasia zuenez, kapak jantzita eta euritakoak hartuta ekin genion. Horrela, euri eta laino artean

lasterketa baten zantzuak, eta, berehala, lanbro artetik lasterkariak, izpiritu alderraiak bailiran. Laster girotu ginen, neska-mutilei aupak eta epak ohikatuz, eta bidea harritsu, lohitsu eta irristakor zegoenez, baita lasterkariei urratsik ziurrenak non erakusten ere. Halaxe, zati luzea batera egin ondoren, haiek atzean utzita, Pasaia begi-bistan genueneko tokia. Postaleko iru-

dia, itsas adarra eta kaia goitik ikusita, giro lainotsu sorginduan. Ordurako, ateri. Jaisteko, eskuin horman ziurtasun lokarriak dituen mendi amildua, poliki eta kontuz egin genuena.

Behin Pasai Donibanen, 13:30ak aldera, kalea jendez lepo, bermuta ordua, eta Victor Hugoren bizitokia atzean utzita, arropaz aldatu eta dotore jarrita, Juan txo jatetxean bazkaltzera. Zazpi plater: urdaiazpiko jabugoa (mm), onddo kroketak (mm), pulpotxoak (mm), entsalada nahasia, legatza (mm), karrillera oportu saltsan (mm) eta budina edo gazta (mm). Dena bikaina! Hala ere, izan zen, aukeran, platerak txiki samarrak irudititu zitzaizkionik ere, enfin. Bazkaldu ondoren, giro ederrean, barran tragoa hartu, eta buelta. Hurrena arte!





## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN  
BERRI ASTEAZKENEN EGURDIA  
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /  
gutunak@guaixe.eus



## OSTIRALA 23

**IRURTZUN** Erraldoiek behar zaituzte! Etorri dantzara! Informaziorako 948 600 412 edo kulturetxea@irurtzun.es e-posta.  
17:00etan, erraldoien bajeran.

**ALTSASU** Sexgunea zabalik egonen da.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**IRURTZUN** Musika eskolako gaita eta txirula ikasleen emanaldia.  
19:00etan, kultur etxean.

**ARBIZU** Iparraldeko neskaren kontakizuna.  
19:00etan, liburutegian.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.  
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**IRURTZUN** Udalak lagundutako elkartasun proiektuen aurkezpena. Tekoulebon aukera berdintasuna (Robek fundazioa) eta Nikaragua iparraldeko emakumeak (Mugarik Gabe Nafarroa).  
19:30etan, kultur etxean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa.  
20:00etan, udaletxe parean.

**IRURTZUN** *Tendremos que dar que hablar para que se nos vea* izenburuko erakusketa jarri dute pintura tailerreko kideek.  
Martxoan, Tahonan eta Pikuxarren.

**LAKUNTZA** Angel Ocayk, Tania Garciak eta Keko Galindok flamenko fusio kontzertua eskainiko dute.  
20:30etan, Sorginak tabernan.

**ARBIZU** Askapenaren brigaden aurkezpena eta Greziako esperientziaren berri.  
22:00etan, Argi Bidea elkartean.

**ALTSASU** *Thi mai: Rumbo a Vietnam* filmaren emanaldia.  
22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 24

**ALTSASU** Altsasu eta Larraitz arteko 100 km-ko joan-etorria egingen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepede atalekoek.  
9:00etan, San Juan plazatik.

**ARBIZU** Defentsa pertsonal tailerra. Ondoren, bazkaria.  
Goizean, Argi Bidea elkartean.

**ALTSASU** Ikasle eguna. Sakanako Ikasle Abertzaleak-ek antolatuta.  
12:00etatik aurrera, Altsasun.

**ALTSASU** Trisomia 21: polikromia.  
17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**LAKUNTZA** Garabatos eta El Desvan.  
18:30etan, kultur etxean.

**ALTSASU** *Salir de cuentas a los 50* antzezlan ekarriko du Tdiferencia konpainiak.  
19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Atzapar Rock eta Gozo-Gozo.  
23:00etan, gaztetxean.

## IGANDEA 25

**SAKANA** Anbotora irteera antolatu du Sakanako Mendizaleak taldeak.  
07:00etan Irurtzundik abiatuko da autobusa.

**ALTSASU** Larregoikoko gaina, 57 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.  
08:30etan, abiatuko dira euren egoitzatik. 09:10etan, Urbasako postuan.

**IRURTZUN** Mural margotzea, 25. Emakumeari Buruzko Jardunaldiak despeditzeko.  
10:00etan, Gernika plazan.

**ETXARRI ARANATZ** Josu XXI urte gogoan. Egia, erreparazioa, ez errepikatzeko bermea. Sortuk deitutako ekitaldia.  
13:00etan, plazan.

**LAKUNTZA** Ikusi makusi.  
17:00etan eta 18:30etan, kultur etxean.

**ALTSASU** *El hijo de piegrande* filmaren emanaldia.

**ALTSASU** *Birziklart* erakusketa, Iñigo Aritza eta Txioka haur ikastolek antolatuta. Martxoaren 28ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

17:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** *Alanis* filmaren emanaldia.  
17:30etan eta 19:40etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** *Thi mai: Rumbo a Vietnam* filmaren emanaldia.  
19:30etan, lortia kultur gunean.

**Altsasu Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**  
20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 26

**IRURTZUN** Musika eskolako bateria, trikitixa eta akordeoi ikasleen emanaldia.  
17:00etan, kultur etxean.

## ASTEARTEA 27

**ALTSASU** Erreleboa negoziotetan. Nafarroako Gobernuak antolatutako jardunaldia. Izena emateko: [www.cederna.eu](http://www.cederna.eu)  
12:00etatik 14:00etara, lortia kultur gunean.

**LAKUNTZA** *Keniako* eskolak, Xabier Lunaren dokumentalaren emanaldia.  
17:30etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Ganbera musika kontzertua eskainiko dute

**Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako** ikasleek.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

## ASTEAZKENA 28

**IRURTZUN** Musika eskolako gitarra, saxofoi eta piano ikasleen emanaldia.  
17:45etan, kultur etxean.

## OSTEGUNA 29

**IRURTZUN** Askapenaren brigaden aurkezpena eta Kurdistango esperientziaren berri.  
19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** *Sin rodeos* filmaren emanaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

## ZORION AGURRAK



Xabier Perianez Gorrochategui  
Ongi etorri Xabier!!! Oso zoriontsu egin gaitu zure etorriak! Musu handi bat zure familiaren partez!!!



ESKELA



## Yeray Lanz Azpilikueta

Iruñean hil zen, 2018ko martxoaren 16an, 30 urte zituela  
Goian Bego

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

**Sakana S. Koop-eko zure lankideak**  
Lakuntzan, 2018ko martxoaren 23an

ESKELA



## Yeray Lanz Azpilikueta

Non hago  
zer larretan.  
Beti egongo zara  
gure bihotzetan.

**Zure kuadrilla**

ESKELA



## Yeray Lanz Azpilikueta



Betirarte Ñapo

**Zure Atakauko lankideak**

ESKELA



## Yeray Lanz Azpilikueta

Goian Bego

Utzi pentsatzen berriz elkartuko garela,  
iraganeko egunak itzuli ahal direla.

**Mariaren kuadrilla**

ESKELA



## Garazi Garasa eta Naiara Goikoetxea

VII. urteurrena

Eguzkia eta alaitasuna ekarri zenizkiguten gure bihotzetara.  
Bizitza bidai zoragarri bihurtu zen zuen ondoan, zoragarriena.  
Gauetan argitasuna, ur gozoa itsasoan, miraririk ederrena,  
gure ametsik maiteena izan zarete,  
eta izango zarete betiko.



**Maite zaituztegu**  
**Etxekoak**

ESKELA



## Naiara Goikoetxea Arteta

Zuri

Utz iezaiezu izarrei zure argitasunaren eurian distiratzen, maitia.  
Utz iezaiezu haizeari hostoak ahazten,  
eta udaberriko liliak esnatzen zure irribarrearen edertasunez.  
Utz iezaiezu ilargiari gauero zure aurpegi polita musukatzen,  
eta maitasunez eta tximeletez jositako zetazko ohiak batez  
zure ametsak babesten.

Utz iezaiezu, utzi, nire maitia  
nik ongi baitakit non dagoen zure bihotza,  
ongi baitakit noren zain zauden.

**Maite zaitut, nire bihotzeko kuttuna.**

ESKELA



## Jose M<sup>a</sup> Pazos Larraza

Bakaikuko San Juan Bautista elizan,  
meza esanen da igandean, martxoak 25,  
eguerdiko 12:00etan,  
kintoen eta lagunuen partez.




## ESKELA

**Yera  
Lanz Azpilikueta**

Lakuntzako abeltzainak

## ESKELA

**Yera  
Lanz Azpilikueta**

Sakanako zure lagun abeltzainak

## URTEURRENA

**Jaime  
Celaya Auzmendi**

II. urteurrena

Datorren igandean, martxoak 25, bere omenez meza esanen da eguerdiko 12:00etan.

Bi urte pasa dira jada,  
zu gure ondotik joan zinela. Gogorra da  
zu gabe egotea, aurrera jarraitzeko zure  
alaitasuna eta aholkuak ditugu.

Betgi gure bihotzean.

**Itziar, Iñigo, Saioa, Aintzane, Arkaitz, Elene, Izaro eta Arane.**  
Bakaiku, martxoaren 26ean.

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**edo [eskela@guaixe.eus](mailto:eskela@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

## JAIOTZAK

- **Luca Perez de Albeniz Pedrosa**, martxoaren 9an Altsasun
- **Xabier Perianez Gorrotxategi**, martxoaren 18an Altsasun
- **Mikel Perkaz Perez**, martxoaren 19an Altsasun

## EZKONTZAK

- **Ekaitz Gartziandia Ormaetxea eta Eva Reyes Oteiza**, martxoaren 10ean Lakuntzan

## HERIOTZAK

- **Yera Lanz Azpilikueta**, martxoaren 16an Lakuntzan
- **Luis Maria Perez-Nievas Perez**, martxoaren 19an Altsasun
- **Isabel Lasa Begiristain**, martxoaren 20an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU  
NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK  
ERRENTAN

**Sakanan etxe bat lorategiarekin alokatzen da.** Tel 690 34 39 78.

## OHARRAK

**Altsasuko irakurle taldea.** Pilar Labaien hizkuntza eta literatura irakasleak zuzendutako literatura hizkuntza izanen da apirillean. Margaret Atwooden . liburuz hizketatuko dira.

**Sakana Trenaren alde.** Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerrak.

**Otdako ermitaren alde.** Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpinak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

**Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresari Elkarteak langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Ha-

rremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu**, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

**Auzolana Josefina Arregui klinikari.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikari) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**3MBK kontu korrontea zabaldu du** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

**Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10.

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

[www.iragarkilaburak.es](http://www.iragarkilaburak.es)


## EGURALDIA ASTEBURUAN

## Ostirala, 23



Goizaldean hodeiak ugartuz joango dira eta arratsalderako euria izango dugu gurean.

## Larunbata, 24




Egun nahasia izango da larunbata eta haizea izango da egungo protagonista.

## Igandea, 25



Igandean eguraldi narratsa izango dugu, haizea eta euria nahastuko dira.

## Astelehena, 26



Euri ugariarekin hasiko dugu eguna, baina egunak aurrera joan ahala hobera egingo du.

tanatorios  
**IRACHE**

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)





UTZITAKOA

## Komiki zintak sortzen

Arkatzak, borragomak, errotuladoreak, koloretako zerak, papera eta irudimena. Horiek erabili zituzten pasa den ostiralean 16 neska-mutikok Urdiaingo liburutegian. Guztiek Iñaki Martiarena Otxotorena, Mattin, komikilari eta irudigilea gidari zutela, komikigintzan trebatu ziren. Euskara Zerbitzuak antolatu zuen tailerra eta errepikatzeak aukera dago.



ZIORDIKO LIBURUTEGIA

## Booktubeak Ziordian

Zazpi gazte booktubeak egiten trebatu ziren Ziordiko liburutegian pasa den ostiralean. Kamera aurrean liburuei buruzko gomendioak eta iritzia nola egin azaldu zien Maddi Orcajok. Berak lagunduta lau bideo egin zituzten. Gero haiek Internet bidez nola zabaldu azaldu zien ere. Mundu mailako joera den jardunaren inguruko ikastaroa Euskara Zerbitzuak antolatu zuen.

**Txalaparta**  
Taberna  
948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

## Motxila 21 BBK Music Legends jaialdian parte hartuko du

Aintzane (saxofoia) eta Ainhoa Lizarraga Etxeberria (akordeoia) dorrobarrak eta Andoni Zilbeti Elia (saxofoia, gitarra eta ahotsa) kide dituen Motxila 21 taldea BBK Music Legens jaialdiaren 3. edizioan ariko da. Garagarri-laren 30ean ariko dira Sondikan eta haiekin batera, kartelean, musika anglofonoko izen handi bat izanen da: John Cale.

# "Errementari" filmak Urdiaingo aditzak ditu

Paul Urkijo zuzendariak Arabako Lautadan XIX. mendean kokatu du kontakizuna. Orduko atmosfera sortzeko hainbat elementu erabili ditu, tartean ezerezetik sortu berri duten euskalki bat. Horretarako Urdiaingo euskararen aditza erabili dute

URDIAIN

Paul Urkijok zuzendutako Errementari filma hilaren 2an mustu zuten. 1843. urtean girotutako filma da eta Jose Migel Barandiaranek jaso zuen *Patxi errementari* euskal ipuin tradizionalean inspiratu da zuzendaria "misterio, abentura eta emozioz jositako ipuin gotiko fantastikoa" sortzeko. Filmeko elkarrizketek euskara berezia darabilte: XIX. mendeko Lautadako izan zitekeena.

Ikuslea XIX. mendean sartu nahi izan horretan, filmerako euskalkia sortu berri dute eta haren kutsua eman diote eus-



Altsasun ikusgai 5an, 6an eta 8an.

kara batuari. Ez da lan filologiko bat izan baina adituek parte hartu dute. Gorka Lazkano filologoa arduratu zen horretaz. Euskalkiaren trazak emateko Juan Bautista Gamiz arabarrak XVIII. mendean idatzitako liburu batean eta Koldo Zuazok Arabako euskarari buruz egindako lanean oinarritu da. Zuazo bera aholkulari izan zuen. Urdiaingo aditza erabiltzea erabaki zuen, "euskalkia bizirik dagoelako eta urdiainerak Arabako euskararekin lotura duelako".

Ez da aurreneko aldia Urdiaingo euskara film batean entzuten dena. Beatriz De la Vegaren *Sarabe* (1999) lanean dago ere.

ZUK GUAIXERI  
50 EURO EMAN

MECNAK  
40 EURO BUELTATU  
ERRENTA AITORPENEAN

Guaixe fundazioa

mecna

Omura fiskala partikularrentzat egindako donazicaren %80a itzuliko zaizu errenta-aitorpenean dehen 150 eurotan, eta %40a kopuru handiagoko donazicetan.





Yolanda Mazkianan Zelaia. ARTXIBOA

## Mariri buruzko dokumentala, finantziario kolektiboz

Yolanda Mazkianan zuzendariaren "Anderearen sua" egitasmoa gauzatzeko da

### ALTSASU

Euskal mitologiako Mari jainkosari buruzko makina bat informazio pilatua du urteetan Yolanda Mazkianan Zelaia altsasuarrak. Duela bi urte *Mari-aren sua* film laburra mustu zuen, hainbat sortzaile altsasuarren parte hartzea duena.

Mazkiananek Mariren inguruan jasotako jakintza jendarteratzeko beharra zuen eta hortik sortu zen duela bi urteko lanak. Baina bide horretan sakondu eta dokumentala egitea erabaki du. Hura egin ahal izateko Internet bidezko diru-bilketa, crowdfunding-a, eginen du. Verkami sareko plataformaren bidez egin ahalko da dokumentalaren aldeko diru ekarpena. Hori apirilaren 9tik aurrera izanen da.

Sortzaile altsasuarrak plataforma horretan aurkezpen bideoa jarri du. Hartan makina bat pertsonen egindako elkarriketak dokumentalean jasoko direla adierazten du, besteak beste: Jose Ignazio Hartsuaga, Anuntxi Arana, Toti Martinez de Lezea, Ixabel Millet, Claude Labat, Enrike Zelaia, Josu Naberan, Margarita amona, Jose Ramon Zubimendi, Felix Gerenabarrena eta Guillermo Piquero. Mazkiananen lan berriak *Anderearen sua* izenburua du.



Castillo Suarez. ARTXIBOA

## Emakumezko idazleen lanak ezagutzeko aukera

Iparraldeko neska, hau da, Castillo Suarez idazleak emakumezko idazleen testuak ezagutzeko solasaldia eskainiko du, gaur, 19:00etan, Arbizuko udaletxe batar aretoan. Hango eta hemengo idazleen testuak ezagutaraziko ditu Suarezek saioan. Eta langintza horretan garai batean idatzitako testu batzuk, egungoak besteekin uztartuko ditu.

## Rock dosi bikoitza larunbat arratsaldea despeditzeko

Lakuntzako kultur etxeak bihar, 18:30etik aurrera, rock jaialdia hartuko du. Eszena-tokira igotzen lehenak Garabatos taldekoak izanen dira. Mikel Manero (bateria), Gaizka Ocaña (gitarra) eta Iñaki Gasko (gitarra), Irati Lasa (ahotsa) eta Asier Palomino (baxua) oroitzapen ederra utzi dien oholtzara bueltatuko dira; han irabazi baitzuten joan den urtean Sakanako Pop-Rock Lehiaketa. 40 ordurako grabazio eskuratu zituzten eta pixkanaka egiten ari dira Altsasuko Estudios Del Reynon, Ricardo Aretekin. Boskoteak orain arte grabatu dituen kantak joko ditu eta kolaborazio bat izanen dutela ere aurreratu digute.

Sakandarren ondoren Iruñerriko El Desvan taldeak bere rock sendo eta melodikoa eskainiko du. Gabriel Gainza (ahotsa eta gitarra), Dani Cifuentes (Baxua), Juanra Alduan (bateria) eta Daniel Calazans (gitarra). Lakuntzan *La taberna del infierno* diskoa aurkeztuko dute.

# Guraso "garaian" izan behar horretaz

Amatasun eta aitatasun berantiarra hizpide duen antzezlanaren ekarriko du TDiferencia konpainiak. Komediaren bidez zenbait bikoterengan inguruak egiten duen presioa du aztergai. Altsasuko lortia kultur gunean da emanaldia, larunbatean, 19:30ean

### ALTSASU

Komedia azkarra eta eroa da *Salir de cuentas a los 50* antzezlanaren. Barre egiteari uzten ez diozun horietakoa. Baina barre eta barre artean amatasun eta aitatasun berantiarraren inguruko aldarrikapen eta eduki polemikoak dituela jabetuko da ikuslea. Eta ziurrenik butakatik ikusleren bat pertsonaiaren batekin identifikatuko dela.

Izan ere, 25 urtetik gorako edozeinek honako galderetako bat egin izan diote inoiz: eta zuk, noizko? Noizko mutil edo neska laguna? Noizko elkarrekin bizitzearena edo ezkontzearena? Noizko haurra? Noizko bigarrena? Eta basektomia noiz? Noizko...? Sudur-puntan jartzen zaidanean!

Eszena-tokian eskarmentu handiko hiru aktore komiko ariko dira: Maite Redin, Patxi Perez eta Mila Espiga. Antzezlaneko protagonistek gogoak eman dienean egitea erabaki



Salir de cuentas a los 50 antzezlanaren larunbatean 19:30ean izango da lortian.

dute. Hau da, amatasun eta aitatasun berantiarrari eta derri-gorrezko urratsei eta denborei ez jarraitzeko eskubidea bere egin dute. Baina euren auzoko, lagun, familia, ezagun eta ezezagunek asko dute esateko. Eta

ez daude isilik egoteko. Komedia hori hasi berriendako da, familia ugari aitendako, ezkongai, ezkondu... guztiondako.

TDiferencia konpainiako aktoreak Garbi Losadak zuzendu ditu.



ENAUT AGIRREBENGOA APAOLAZA

## Kantarien baratza zaintzen

Altsasuko lortia kultur gunea beteta zegoela ospatu zen Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdia larunbatean. Iñigo Aritzak antolatuko duen Nafarroa Oinez festaren barruko ekitaldia zen eta, inklusiboa izateko, keinu hizkuntzako aurkezlea ere izan zuen.

Kultur guneko oholtzatik bederlatzi talde eta bakarlari bat pasa ziren. Azken horrek bere sormen lana aurkeztu zuen jendaurrean, gainontzekoek euskal kantu ezagunak abestu zituzten. Jaialdia, hala ere, hasi eta buka "Aurrera Altsasu" kantuarekin egin zuten.



# "Tamaina errealeko scalextrica ikustea da"

Auto elektrikoak gora egiten ari diren eran hazten ari da E Formula. Ez du oraindik 1 Formulak duen sonarik, baina diziplina ikusgarria da. Hala uste du Alberto Mazkieran altsasuarrak. Elektrikaria da, eta lasterketetako teknologia prestatzen ari da

**Eñaut Agirrebengoa Apaolaza**  
ALTSASU

## 1 Nolako da E Formulako Munduko Txapelketan lan egitea?

Esperientzia berria da niretako. Espainiako Vueltan egin nuen lan, eta lasterketa antolatzen duen enpresak E Formularen ari-zeko aukera eskaini zidan. Oso gustura nabil. 1 Formularen gisakoa da, baina auto elektrikoekin. Enpresa kataluniar batendako egiten dugu lan: kronometrajeaz, lasterketak zuzentzeaz, semafoeroez eta kamera sistemaz arduratzen da, besteak beste.

## 2 Zuk zer eginkizun duzu?

Batetik, Interneten instalazioaz arduratzen naiz, eta, bestetik, denborak kontrolatzeko sentsoreak jartzen ditut zirkuituan barna. Segurtasun kamerak eta boxetakoak ere ipintzen ditut. Azken horiek arauzko denboratik kanpo autoetan mol-daketak egin ez dezaten.

## 3 Halako kirol ekitaldiek parafernalia handia dakar berekin, ezta?

Milaka xehetasun zaintzen dira ikuskizuna behar bezalakoa izan dadin. Taldeak kontrolatu behar ditugu, E Formulako langileen



Alberto Mazkieran, E Formulako langilea. UTZITAKOA

karpan Internet zerbitzuak eta telebista kamerak instalatu behar ditugu, VIP gunean telebista pantailak eta beste jarri behar ditugu... Hau 1 Formula baino koxka bat beherago dago, baina, edonola, amaiezina da egin beharreko lanen zerrenda.

## 4 Lan egiteaz aparte, mundua ezagutzen ere ari zara.

Hala da. Hong Kongen, Marra-kexen, Txileko Santiagon, Mexiko Hirian eta Uruguaiako Punta del Esten izan gara. Hemendik aurrera Berlinen, Parisen, Erroman, Zurichen, eta New Yorken. Oso denbora gutxi izaten dugu tokiak ezagutzeko. Lasterketak larunbat arratsaldetan izaten dira. Bada, aste batean muntatutakoa gau batean jaso behar

izaten dugu. Behintzat, larunbat goizak libre izaten ditugu.

## 5 Lana nola ari zara uztartzen familia bizimoduarekin?

Hortxe gabiltza. Hiru seme-alaba ditut, eta itxaronaldia azkeneko luze egiten zaie. Nolanahi, oraingoan ondo ari gara moldatzen. Pare bat aste ematen dituzu kanpoan, baina, batzuetan, etxean hiru astez egoteko aukera ematen dizu egutegiak. Lehen bi proben artean, adibidez, hilabete oso bat eman nuen etxean, eguberrietan hain justu. Egoera honetan, gehiago aprobetxatzen dut etxean pasatzen dudana denbora.

## 6 Zer da lan honetaz gehien gustatzen zaizuna?

Lasterketen mundua betidanik gustatu izan zait. Orain arte txirrindularitzan aritu naiz, eta orain auto lasterketaz ari naiz gozatzen. 1 Formularen aritutako pilotu asko ari naiz ezagutzen. Bitxia da, autoen motorrek ez dutelako zaratarik ateratzen. Tamaina errealeko scalextriko autoak ikustea bezalakoa da. Horrekin batera, azpimarratzekoa da pilotuek autoz aldatu behar dutela lasterketen erdian. Hori bai, 2019tik aurrera bakarra erabiliko dute, baterien autonomia hobetu baita.

## 7 Eta ba al da gutxi gustatzen zaizun alderdiren bat?

Hegazkina agian, etxera itzultzekoan. Oso nekatuta bukatzen dugu instalazio guztia desmuntatu ondoren, gutxi egiten dugu lo, eta ez da samurra izaten berehala hegazkina hartu behar izatea. Baina, hori kenduta, alde onak besterik ez dizkiot ikusten.

## 8 Rural Kutxaren amateur taldeko zuzendari izandakoa zara. Sumatzen al duzu lan horren falta?

Oraitxe bertan, ez. Txirrindularitzari lotuta segitzen dut. Adibidez, antolakuntza lanak egitea tokako zait Euskal Herriko Itzulian, Miguel Indurain Sarian eta Espainiako Vueltan. Beraz, badut modua ziklismo gosea asetzeko. Bestelako lasaitasunez bizi dezaket.

## 9 Ikusten da kirola pasio duzula.

Hala da. Niri betidanik gustatu izan zait kirola. Beraz, ezin naiteke kexatu aldi berean txirrindularitzaren eta automobilismoaren munduan jardunda. Izugarri ari naiz gozatzen.

## 10 Bi kirol horietako zeinek inerteratuko geratuko zinateke?

Une honetan, agian, automobilismoarekin, esperientzia itzela ari naizelako bizitzen, edo nobedadea delako. Baina txikitatik txirrindularitzarekiko izan dut zaletasun gehien. Orain ez nago horren lotuta, baina kontaktua izaten jarraitzen dut.

## 11 Etorrizunetarako plana?

Enpresak beste bi urterako dauka kontratua E Formularekin, eta berritzeko aukera dauka, gauzak ondo egiten badira. Lehenengo ediziotik dabil bertan. Espero dut mundu honetara lotuta jarraitzeko aukera izatea. Orain hamar talde dabil E Formularen, besteak beste, Renault, Audi edota McLaren, eta datorren urtean Mercedes eta Porsche bezalako markak sartuko dira. Beraz, uste dut diziplina honek gora egingo duela.

**Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)**



948 564 275  
Foru plaza, 23-1. Altsasu  
gk@gkomunikazioa.eus  
www.gkomunikazioa.eus

*Egun garrantzitsu horretan maite duzun guztia etor dadin, gonbidapen ederrak egingo dizkizugu.*

